

2023

3. hiruhilekoa

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA ETA OGASUN
SAILA
Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA
Dirección de Economía y Planificación

EAEko ekonomiaren hiruhilabetekaria

LABURPENA	3
EKONOMIAREN INGURUNEA	5
EAE-KO EKONOMIA	9
Ekoizpena eta enplegua	9
Barne eta kanpo eskaria	14
Prezioak, soldatak eta kostuak	21
Arlo publikoa	25
Arlo finantzarioa	27
Aurreikuspenak	33

Irudien aurkibidea

Munduko ekonomia. BPGa (I)	5
Munduko ekonomia. BPGa (II)	7
Enpleguaren bilakaera	12
Etxebizitzaren hipoteken bilakaera	30
2023ko eta 2024ko aurreikuspenak (I)	37
2023ko eta 2024ko aurreikuspenak (II)	39

Taulen aurkibidea

Eskaintzaren aldagaiak	9
Jardueraren adierazleak	10
Eskariaren aldagaiak	14
Kontsumo eta inbertsioaren adierazleak	15
Esportazioak produktuen arabera	17
Esportazioen helmuga	18
Inportazioen jatorria	20
Kontsumoko prezioen indizearen banaketa	21
EAEko kontsumoko prezioen indizea	23

Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak.....	24
Lan kostuak	25
Tributu itunduen bilakaera (urtarrila-abuztua).....	26
Adierazle monetario eta finantzarioak (I)	28
Adierazle monetario eta finantzarioak (II)	29
Kreditu eta gordailuak.....	32
Ekonomia aurreikuspenak.....	33
Espainiako ekonomiarako aurreikuspen ekonomikoak (2023ko iraila)	35
EAEko ekonomiarako aurreikuspenak hiruhilekoka (2023ko iraila)	36
Aurreikuspenak egiteko hipotesiak (2023ko iraila).....	38

LABURPENA

EAEko ekonomia %1,5 hazi zen urte arteko tasan 2023ko bigarren hiruhilekoan, hots, urtearen hasieran baino zortzi hamarren gutxiago. Beraz, luzatu egin da 2022ko lehen hiruhilekotik hautematen den moteltzea, hiruhileko horretan BPGak %7,2ko tasa jaso baitzuen, oraindik ere pandemiaren hedapen handiko garai batekin alderatuta. Bigarren hiruhilekoko emaitza Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak ekainean aurreikusitakoa (%1,3) baino zertxobait handiagoa da, nahiz eta inguruko igurikimenak okertu diren, Ukrainako gerraren iraupenaren, inflazio handiaren eta interes-tasen igoeraren eraginaren ondorioz. Hiruhileko arteko tasetan, EAEko ekonomia hamarren bat baino ez zen moteldu, eta %0,4ko hazkunde esanguratsua izan zuen, Europar Batasunak geldialdia erakutsi zuen bitartean.

Industria da inguruan bizi den ahuleziak eta Europako Banku Zentralak (EBZ) abian jarritako moneta politika murriztaileak gehien kaltetu duten sektorea, erakunde horrek inflazio tasa handiak murrizteko ekonomia hozten saiatzen baita. Hori horrela izanda, sektorearen balio erantsia puntu erdi murriztu zen aurreko urtearekin alderatuta, zortzi hiruhilekotan jarraian hazkunde handiak eskuratu ondoren. Beraz, pandemia hasi aurretik izan zuen jarduera mailatik urrundu da, orain hiru puntu pasatxora geratzen baita. Eskaera berririk ez izatea da azken hilabeteetan EAEko industriak eta Europako herrialde nagusietakoak bizi duten ahultasuna azaltzen duen arrazoi nagusia.

Aitzitik, eraikuntzak nabarmen hobetu zuen lehen hiruhilekoko emaitza ahula eta %4,2ko igoera lortu zuen balio erantsian, 2022an lortutako zifra onei jarraipena emanez. Sektorearen jarduera eraikinen atalak, batez ere etxebizitzaren salmentak, bizi duen une onean eta, bereziki, obra zibilaren gorakadan oinarritzen da; izan ere, obra zibilak gorakada oso handiak izan ditu, lehengaien prezioak jaitsi ondoren. Hala eta guztiz ere, interes tasek izan duten igoera handia hipotekak garestitzen eta etxebizitzaren erosketak geldiarazten ari da, hala etxe berriena nola erabiliena.

Zerbitzuek moteltze handia erakutsi zuten, baina balio erantsian hazkunde nabarmenak izaten jarraitzen dute. Hala, aurtengo bigarren hiruhilekoan urte arteko tasa %2,1ekoa izan zen, aurreko balioa baino zortzi hamarren txikiagoa eta azken bederatzi hiruhilekoetako erritmo apalena. Pandemia kontrolatu ondoren, jarduerak ireki eta gero zerbitzuek ezagutu zuten bultzada apartak lekua uzten dio orain beste aldi batzuetan ezagututako eskaera erritmo bati. Hori bereziki ikusten da merkataritza, ostalaritza eta garraio taldearen bilakaeran, bi zenbakiko igoerak atzean utzi eta %2,9ko hazkundera izan baitu. Beste aldetik, sektore publikoari gehien lotutako jarduerak %2,1 handitu ziren, eta, azkenik, gainerako zerbitzuek urte arteko %1,4ko tasa izan zuten.

Eskariaren aldetik azpimarratu behar den ezaugarria kanpo saldoaren zeinu aldaketa da, negatiboa izatera pasa baita. Izan ere, barne eskariak %1,7ko hazkundea izan zuen, eta horrek iradokitzen du BPGaren hazkundeari 1,8 puntuko ekarpena egin ziola, eta kanpoko eskariak, berriz, hiru hamarren inguru kendu zituen, lehen hiruhilekoan lau hamarren inguru eman ondoren. Zeinu aldaketa horren arrazoia kanpo harremanak hoztu izana da, esportazioetan eta inportazioetan beherakadak izan baitira. Zehazki, lehenengoak %2,5 murriztu ziren eta azkenak %2,0, biak balio errealetan.

Barne eskariak irudi egonkorragoa izan zuen, urte arteko hazkundea aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat txikiagoa bakarrik izan baitzen. Azken kontsumoan egindako gastuaren erritmoa lau hamarrenetan moteldu zen, %1,5era arte. Familien gastua %1,3 baino ez zen hazi, ekonomia osoaren azpitik, inflazioak erosteko ahalmenean duen eraginagatik. Zorionez, enplegua sortzeak aukera ematen du kontsumo pribatuak oraindik ere emaitza positiboa izateko. Bestalde, administrazio publikoen kontsumoak %2,0 inguruko gorakada egonkorra erakusten du. Kapitalaren eraketa gordinak ekarri du emaitza positiboa, %2,5eraino bizkortu baitu bere hazkunde tasa. Alde batetik, ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioari (%0,9) eragin zion eskaririk ezak eta interes tasen igoerak. Bestetik, inbertsioaren gainerakoa (%3,5) eraikuntzaren sektorearen jardueraz baliatu zen emaitza ona eskuratzeko.

Lan merkatuak indar handia erakusten jarraitzen du. Bigarren hiruhilekoan, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua %1,5 igo zen, aurreko hiruhilekoaren tasa bera. Azken urtebetean 14.000 enplegu garbi inguru sortu dira; horietatik 12.000 inguru zerbitzu jardueretan kontzentratu ziren eta 2.000 industrian. Eraikuntzak bere jarduera indartsuari aurre egin zion enplegua ia handitu gabe.

Inflazioak moteltzeko zantzuak erakutsi ditu, nahiz eta oraindik tasa altuetan egon. Izan ere, BPGaren deflatoarea %3,5ean kokatu zen aurtengo bigarren hiruhilekoan, eta dagoeneko hiru hiruhilekotan gutxitu da. Bestalde, KPIa %2,3ra jaitsi zen ekainean, baina hurrengo bi hilabeteetan %2,7raino igo zen. Halaber, azpiko inflazioak lau hilabete daramatza egonkor, %6,0tik gorako balioetan.


2023-2024 aldirako aurreikuspenen eguneratzeak ia ez du ezer aldatu ekainean argitaratutako emaitza. Gaur egungo taula makroekonomikoak aurreikusten du EAEko BPGa aurten %1,7 haziko dela, eta datorren urtean, berriz, %2,1, biak termino errealetan. Unean uneko eurotan, aurreikusitako igoerak %5,4 eta %5,0 dira, hurrenez hurren, 2024an bereziki motelduko den BPGaren deflatoare baten ondorioz. Bestalde, oraingo aurreikuspenaren arabera, 13.000 lanpostu inguru sortuko dira aurten, eta 16.000 inguru, berriz, datorren urtean. Zifra horiek %6,8an utziko dute langabezia-tasa 2024aren amaieran, Europako batez bestekoarekin bat egitetik gero eta gertuago.

EKONOMIAREN INGURUNEA


Munduko jarduera ekonomikoa indartsu agertu zen 2023ko bigarren hiruhilekoan, lan merkatu sendoek, energiaren krisiaren distentsioak, botila lepoak normalizatzeak, konfiantza berreskuratzeak, Txina berriz irekitzeak eta zerbitzuen dinamismoak lagunduta. Halaber, inflazioa modu iraunkorrean murrizten joan zen ekonomia nagusi guztietan, batez ere energia alorreko inflazioaren zuzenketari esker, zeren eta azpiko prezioen murrizketa askoz motelagoa izaten ari baita.

Munduko ekonomia. BPGa (I) Urte arteko aldakuntza tasak

ELGA



Txina



Iturria: ELGA.

Horri guztiari esker, bigarren hiruhilekoaren balantzea positiboa izan zen eremu guztietan, eta, horien artean, Txinak eta AEBek erregistratutako BPGaren hazkunde garrantzitsuak nabarmendu ziren. Izan ere, bertako jarduera ekonomikoak gorakada handia izan zuen, eta urteko lehen hiruhilekoan hasitako goranzko ibilbidea sendotu zuela zirudien.

Txinak urte arteko %6,3ko hazkunde tasa lortu zuen, duela urtebete covid-19arekin lotutako konfinamenduek eragindako oinarrizko efektuen isla. Hiruhileko arteko terminoetan, %0,8raino moteldu zen, lehen hiruhilekoko %2,2tik. Etxebizitzaren sektorean ikusitako atzerakada berriaren eta kontsumoko gastuaren moteltzearen ondorioz, barne eskariaren susperraldia laburra izan da. Esportazioak ere nabarmen murriztu ziren, kanpoko eskariaren ahultasunaren ondorioz, bereziki manufakturatutako ondasunena. Orobat, horri guztiari higiezinaren sektorearen likidezia krisia gehitu behar zaio, gazteen langabezia arazo errekorrak, atzerriko

inbertsio baxua, gutxienez 14 urteko maila txikienera jaitsi diren banku maileguak, etxebizitzaren prezioen beherakada, etab. Horrek guztiak bilakaera zalantzarria erakusten du urteko bigarren seihilekorako.

Herrialde aurreratuen jardura ekonomikoak, oro har, ez zuen aldaketa handirik erakutsi, urteko bigarren laurdenean %1,5 hazi baitzen, gutxi gorabehera lehenengoaren maila berean. Hala ere, egonkortasun horren atzean kide nagusien bilakaera heterogeneoa ezkututzen da. Horrela, AEBak indartsu eta azkar hazten ari ziren bitartean, euroaren eremua ilauntzen ari zen, Alemaniaren uzkurdurak eta Italiaren apatiak bultzatuta. Herrialde horien arteko bilakaera homogeneo bakarria inflazio orokorrarena izan zen; izan ere, inflazio orokorrak behera egiten jarraitu zuen, elikagaien eta energiaren prezioen gaineko presioak arindu zirelako, baina azpiko inflazioak maila altuetan jarraitu zuen.


Zehatz-mehatz adierazita, AEBetan jardura ekonomikoak uste baino erresistentzia gaitasun handiagoa erakutsi zuen, eta %2,5 hazi zen. Familiek gastatzen jarraitu zuten, interes tasak igo ziren arren, eta horrek gastu pribatua bultzatu zuen, %2,3 sendo bateraino. Hazkunde horren zati handi bat zerbitzuetan egindako gastuari zor zaio, hala nola oporretako bidaiak, jatetxeak eta aisialdia. Inbertsio pribatuak, bestalde, deprimetuta jarraitu zuen, baina horrek ez zuen eragotzi BPGaren hazkundeari lau hamarrenekin laguntzea. Ekarpen hori ia osorik etxebizitzaren kanpoko inbertsioaren bidez lortu zen. Halaber, jardura ekonomikoak AEBetako lan merkatuaren dinamismoa izaten jarraitu zuen, nahiz eta bere hazkunde erritmoa moteltzen ari den pixkanaka. Hala, langabezia tasak oso maila txikian jarraitu zuen (%3,5 uztailen), enpleguak hazten jarraitu zuen eta lanpostu hutsen kopuruak behera egin zuen astiro. Azkenik, inflazioak gora egin zuen abuztuan, %3,7an kokatuz, uztailen baino bost hamarren gorago. Bestalde, azpiko inflazioa %4,3ra irtitsi zen.

Japoniako ekonomia, bestalde, %1,7 hazi zen bigarren hiruhilekoan, hau da, lehen hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago, automobilen esportazioen dinamismoak eta turisten etorrerak bultzatuta. Horiek kontsumoaren motelaldia konpentsatzen lagundu zuten. Soldata errealean etengabeko jaitsierak eta familien konfiantzaren beherakadak nabarmen baldintzatu zuten kontsumoaren bilakaera, publikoa zein pribatua, eta bi hamarren baino ez ziren hazi hiruhileko osoan. Inflazio orokorra pixka bat igo zen eta %3,3an kokatu zen ekainean, elektrizitatearen prezio arautuen igoeren ondorioz. Azpiko inflazioa ez zen aldatu aurreko hilabetearen aldean, eta %2,6an mantendu zen, eta horrek adierazten du prezioek, beren sakonean, dinamismo bizia dutela.

Eurogunean jardura ekonomikoak erritmoa galdu zuen berriro. Zehazkiago adierazita, bertako BPGa %0,5 hazi zen urte arteko tasan eta aurtengo lehen hiruhilekoan hauteman zen geldialdi arina (%0,1) mantendu zen hiruhileko arteko tasetan, iazko laugarren hiruhilekoko -%0,1

murriztu ondoren. Tasa batean zein bestean eremuaren ahulezia begi bistakoa da. Analisia urte arteko tasetan fokatuz gero, ikusten da hazkundera inbertsioaren ekarpenak (0,3 puntu) eta, neurri txikiagoan, kontsumo pribatuaren ekarpenak (0,1 puntu) bultzatu zutela. Kontsumitzailearen konfiantzaren beherakadak, erosketa saskiaren eta erregaien garestitzeak eta finantzaketarako baldintzen gogortzeak nabarmen murriztu zuten kontsumoa eta, horrekin batera, eskaria. Eskariaren ahulezia horrek manufakturen sektoreari eta eraikuntzari eragin die bereziki. Hala berresten du manufakturen PMIaren bilakaerak; izan ere, 2022ko uztailetik hedapen mailaren azpitik dago, eta aurtengo abuztuan 43,2ra jaitsi da. Zerbitzuek, bestalde, erresistentzia handiagoa erakutsi dute, bereziki aisialdiko jarduerak, eta uztaila arte hedapen mailan mantentzea lortu dute. Baina abuztuan 47,9ra arte erori ziren.

Munduko ekonomia. BPGa (II) Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eurostat eta BEA.

Herrialdeka, kontraste bat ikusten da periferiako ekonomien erresilientziaren eta nukleoaren ahuleziaren artean. Zehatzago adierazita, jarduera ekonomikoa %2,7 hazi zen Grezian, %2,3 Portugalen eta %1,8 Espainian. Horiek guztiek inbertsio sendoa eta kontsumo pribatu egonkorra erakutsi zuten, eta esportazioen dinamismo txikiagoa konpentsatu zuten. Italia joera horretatik urrundu zen, eta tasa apalagoak eskuratu zituen, baina oraindik positiboak (%0,4). Kasu horretan, kontsumo pribatuaren hazkundera ez zen nahikoa izan inbertsioaren beherakada eta esportazioen apaltzea konpentsatzeko.

Aitzitik, Alemanian, eskariaren agregatu guztiak murriztu ziren, salbuespen bakarra inbertsioa izan zelarik, %1,7 hazi baitzen aurreko hiru hilabeteetan izandako beherakadaren ondoren. Kontsumo pribatuak uzteko areagotu zuen eta esportazioak -%0,7raino jaitsi ziren. Horrek

Alemaniariko BPG $-0,1$ eraino eraman zuen. Beraz, bigarren jaitsiera jarraian izan zuen, urte hasieran $-0,3$ murriztu ondoren. Tasen igoerak, energiaren garestitzeak eta gatazka belikoarekiko hurbiltasunak kalte egin zioten berriro Alemaniako BPGari. Frantziako jarduera ekonomikoa, azkenik, $1,0$ hazi zen, esportazioen hazkunde handiak eta inbertsioaren egonkortasunak bultzatuta, kontsumo pribatuaren jaitsiera bat-batekoa konpentsatu baitzuten. Hala ere, salmenten hazkunde hori ontzi baten bidalketa puntualak baldintzatu zuen, eta horrek zalantzan jartzen du Frantziako ekonomiaren indarra eta etorkizuneko bilakaera, are gehiago kontuan hartuta abuztuan haren PMIa 46 puntura jaitsi zela.

Euroguneak erakutsi duen ageriko ahulezia hori ez dator bat bere lan merkatuak duen dinamismoarekin. Zehatz-mehatz adierazita, euroaren eremuko enplegua $1,3$ handitu zen aurtengo bigarren hiruhilekoan eta langabezia tasa uztailean $6,4$ an mantendu zen, azken aldietako balio minimoa baita. Horrek esan nahi du 11 milioi pertsona baino gutxiago daudela langabezian. Espainian ($11,6$), Grezian ($10,8$) eta Italian ($7,6$) erregistratu ziren langabezia tasa altuenak.

Eurogunetik kanpo, Erresuma Batuko BPGak pixka bat egin zuen gora eta urte arteko tasa $0,4$ an kokatu zen. Tasa horrek bere ekonomiaren hauskortasuna islatzen badu ere, barne eskaria sendoa izan zen, kontsumoa eta inbertsioa gorantz joan baitziren, eta esportazioen eta izakinen aldakuntzaren beherakada handiak murriztu egin zituen. Prezioek, azkenik, oso maila altuetan jarraitzen dute. Horrela, uztaileko KPI orokorra $6,8$ an kokatu zen eta azpiko inflazioa, berriz, $6,9$ an.

Bigarren hiruhileko honetan emaitza orokorrak onak izan diren arren, bigarren seiuhilekoko bilakaera zalantzazkoa da. Izan ere, apirilko eta maiatzeko emaitza onen ondoren, ekainean adierazle ekonomiko nagusiak indarra galtzen hasi ziren, eta joera hori areagotu egin da uztailean eta abuztuan. Hain zuzen ere, oraindik ere altua den inflazioa eta finantzaketarako baldintzen gogortzea gastua geldiarazten ari dira, eta horrek manufakturen ekoizpenari eragiten dio bereziki, kanpoko eskariaren ahuleziak ere kalte egiten dion bezala. Orobat, kanpoko ahuleziak eragina du bizitegi eta enpresa inbertsioan. Zerbitzuek erresistentziarako gaitasun handiagoa erakutsi dute, baina haien dinamismoa ere moteltzen ari da. Izan ere, ekainetik abuztura bitartean (argitaratutako azken datua), herrialde nagusietako PMI konposatuek puntu bat behera egin dute Txinan, 3,2 puntu euroaren eremuan, 4,2 puntu Erresuma Batuan eta 6 puntu Alemanian. Ondorioz, herrialde nagusi ia guztiek 50 puntuko langatik behera jarri dute beren indizea, hau da, uzteko eremuan.

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

EAEko ekonomia ez da Europako ekonomiek bizi duten moteltzeko prozesutik kanpo geratzen, eta 2023ko bigarren hiruhilekoan hazkunde erritmoa %1,5era moteldu zuen, hau da, aurreko datua baino zortzi hamarren gutxiago eta 2022ko hiruhileko berean baino bost puntu gutxiago. Aipatu behar da moteltzeko joeraren azkartasuna areagotu egin dela Eustatek berriki egindako 2022ko kontu ekonomikoen eguneratzearekin, urte horretako batez besteko hazkundea puntu bat igo baitu, hasieran iragarri zuen %4,4tik oraingoan publikatu duen %5,4ra. Informazio berri horrekin, EAEko ekonomiak pandemia hasi aurreko BPGaren maila iazko bigarren hiruhilekoan berreskuratu zuen, eta garai hartako maila baino bi puntu gorago dago une hauetan. Bigarren hiruhilekoko hazkundea Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak ekainean egindako aurreikuspena (%1,3) baino pixka bat handiagoa da, eta inguruko ekonomien emaitzak nabarmen gainditzen ditu; izan ere, Europar Batasunean %0,4ko tasak jaso ziren eta euroaren eremuan, berriz, %0,5ekoak, eta Alemaniak bigarren hiruhilekoz jarraian datu negatiboa izan zuen (-%0,1).

ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2021	2022	2022			2023	
			II	III	IV	I	II
BPG erreala	6,0	5,4	6,5	4,8	3,4	2,3	1,5
Nekazaritza eta arrantza	15,1	-8,7	-13,6	-2,3	-7,3	2,1	-6,7
Industria eta energia	5,3	4,7	6,7	3,1	2,4	1,1	-0,5
- Manufakturen industria	9,0	4,4	6,0	2,0	2,3	1,4	-0,3
Eraikuntza	1,0	6,7	7,3	9,0	6,0	0,9	4,2
Zerbitzuak	6,6	5,9	6,8	5,2	3,7	2,9	2,1
- Merkat., ostalaritza eta garraioa	15,6	14,6	18,6	12,9	8,2	5,4	2,9
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	2,3	0,9	0,2	0,3	1,4	1,2	2,1
- Gainontzeko zerbitzuak	4,1	3,2	3,3	3,1	2,0	2,1	1,4
Balio erantsi gordina	6,1	5,5	6,6	4,9	3,4	2,4	1,5
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	5,2	4,6	5,2	4,2	3,1	1,6	1,3

Iturria: Eustat.

EAEko ekonomiaren hiru sektore nagusien bilakaera erabat kontrakoa izan da. Hala, industriak intentsitatea azkar galdu du, eta, horren ondorioz, balio erantsia pixka bat murriztu du urte arteko tasetan (-%0,5), zortzi hiruhilekotan jarraian hazkunde tasa handiak eskuratu ondoren. Aitzitik, eraikuntzak hazkunde erritmo biziari ekin dio berriro, eta %4,2ko hazkundera lortu du. Azkenik, zerbitzuen hazkundera galgatu egin da, baina ekonomiaren batez bestekoa baino tasa handiagoetan mantendu dira.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2021	2022	2022			2023	
			II	III	IV	I	II
Industria							
Industria produkzioaren indizea	10,5	5,7	7,4	4,2	3,3	2,2	-1,9
Negozio zifren indizea	18,2	25,7	38,7	22,8	19,9	19,0	-6,5
Industria giroaren indizea	-10,2	1,1	4,7	0,4	-7,2	-12,7	-15,8
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,5	1,2	1,1	0,8	1,2	1,1	1,3
Eraikuntza							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	7,8	8,3	8,9	11,7	13,3	4,7	11,0
Etxebizitza berriak eraikit. oniritziak	39,6	-13,7	-34,9	3,1	-22,2	-39,7	---
Etxebizitzaren salerosketak	21,3	9,4	6,9	10,3	5,8	-0,8	-18,2
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,1	1,7	1,7	1,5	1,6	1,3	0,9
Zerbitzuak							
Hegazkinen bidezko bidaiariak	57,5	100,7	272,1	53,2	41,4	61,0	19,9
Hoteletan igarotako gaualdiak	73,4	54,2	146,5	20,2	20,7	30,4	11,2
Negozio zifren indizea	15,4	16,2	20,5	14,2	12,6	9,9	1,0
Zerbitzuen koiuntura indizea	6,0	2,9	5,2	0,0	1,6	0,2	-3,0
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,2	2,4	2,9	2,0	1,8	1,3	1,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerio, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Gizarte Segurantza eta AENaren datuetan oinarrituta.

EAEko industria jardueraren moteltzea Europako ekonomietan bizi denaren antzekoa da, eta, besteak beste, helmugako merkatuen ahuleziak, eskaera berrien faltak, energiaren kostu handiek eta interes tasen igoera azkarrak eragin dute. Txinan datuek adierazten dutena baino indarberritze handiagoa aurreikusten zen, eta horrek kalte egiten die euroaren eremuko bultzagile nagusien esportazioei, bereziki Alemaniari, eta herrialde horrekin harreman estua dute EAEko enpresek.

Industriaren ekoizpenari buruzko datuek iradokitzen dutenez, udaberriaren beharokada txikiak izan ondoren, udan areagotu egin dira urte arteko jaitsierak. Zehazki, bigarren hiruhilekoan erregistratutako $-1,9\%$ aren ondoren, uztaileko datua $-4,7\%$ koa izan zen, jarduera gelditzean sakontzen duena. Europan ere jaitsierak areagotu egin dira, uztailean $-2,0\%$ inguruan kokatu baitziren. EAEn kasuan, jaitsiera batez ere energiaren ekoizpenean gertatu da, $9,4\%$ urteko lehen sei hilabeteetan eta $14,3\%$ berriz, uztailean. Gainerako ondasun taldeek ere murriztu egin dute ekoizpena, baina erritmo askoz txikiagoan, kontsumoko ondasunen eta ekipamenduko ondasunen kasuan $1,0\%$ iritsi gabe.

Eskaera berririk ez izateak sektorearen igurikimenei eragiten die, eta hilabeteak igaro ahala okerrera egiten dute. Industria giroaren indizeak 2022ko azken zatian kokatzen du ezkortasunaren etorrera, baina ezkortasun hori areagotu egin da aurtengo lehen hilabeteetan, nahiz eta duela gutxi egonkortzeko joera erakutsi duen. Eskaera zorroari buruzko iritziak okerrera egin dute azkar, batez ere uztailean eta abuztuan. Hala eta guztiz ere, ekoizpenaren joerari buruzko iritziak gorabehera handiak erakusten dituzte, baina okertzeko joera argirik adierazi gabe. Azkenik, saldu gabe dauzkaten amaitutako produktuen stocka bizkor murriztu da, zeren eta enpresak eskaera zaharrak aurrera ateratzera dedikatu baitira, enkargu berriak iristen ez zirelako.

Eraikuntzak bizkortu egin zuen bere balio erantsiaren aldakuntza tasa, eta urte arteko $4,2\%$ an kokatu zen, aurreko hiruhilekoeko datuaren ($0,9\%$) oso gainetik. Sektoreko bi osagaietatik, obra zibila da une honetan dinamismo handiena erakusten duena. Bestalde, eraikinen atalak ere hazkunde oso handiak izan ditu bere jardueran. Hala ere, interes tasen igoera handiak eragina izaten ari dira etxebizitzaren salmentan, bai erabilitakoetan, bai eraikuntza berrikoetan, 18% inguru jaitsi baitziren bigarren hiruhilekoan, pandemia hasi zenetik izandako emaitzarik txarrena baita.


Zerbitzuek hazkunde erritmoa $2,1\%$ eraino leundu zuten, azken bederatzi hiruhilekoetako tasarik apalena. Pandemiaren osteko jardueren irekierak ohiz kanpo handitu zuen zerbitzuen eskaria, eta pixkanaka maila ohikoagoetara itzultzen ari da, ekonomia osoaren hazkundearekin bat datozenetara. Bilakaera hori merkataritza, ostalaritza eta garraioko jarduerak barne hartzen dituen taldean nabarmentzen da bereziki, duela urtebete 20% inguruko tasetan hazten baitzen, eta orain $2,9\%$ eraino apaldu baita, oraindik ere ekonomiaren batez bestekoaren oso gainetik, baina moteltzeko joera nabarmena erakutsiz. Sektore publikoari gehien lotutako jarduerak (administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak), oro har, $2,1\%$ egin zuten gora balio erantsia, azken urte eta erdiko hazkunderik handiena. Azkenik, gainerako zerbitzuek ere moteldu egin zuten aldakuntza tasa, eta $1,4\%$ an kokatu zen, EAEn ekonomiak aldi horretan izandako batez besteko balioetik oso hurbil.

Turismoarekin lotutako zerbitzuen bilakaera onak udako hilabeteetan jarraitu du. Zehazki, EAEko aireportuak joan-etorrietarako erabili zituzten pertsonen kopurua %19,9 igo zen bigarren hiruhilekoan, eta %17,5 uztailleko eta abuztuko batez bestekoan, eta errekor historikoak ezarri ziren bi hilabete horietako bakoitzean. Era berean, hotel establezimenduetako gaualdiak %11,2 gehitu ziren bigarren hiruhilekoan, eta oraindik ere nolabaiteko gorakada izan zuten uztaillean eta abuztuan, ia %6,0ko igoera izan baitzuten, 800.000 gaualdi baino gehiagorekin hilabete bakoitzean.


BPGak bigarren hiruhilekoan izandako moteltzea ez zen lan merkatura hedatu, eta horrek aurrerapen nabarmena erakutsi zuen. Hala, enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, %1,5 hazi zen aldi horretan, aurreko hiruhilekoko tasa bera. Horren ondorioz, 14.000 lanpostu garbi inguru sortu dira azken urtean. Eustatek 2021erako eta 2022rako egindako kalkulu berriak milioi bat lanposturen zifra urrundu du, eta egungo guztizkoa 980.000 enplegu baino gehixeagotan kokatu du. Lanpostu berri horietako asko zerbitzu jardueretan lortu dira (12.000 baino pixka bat gehiago), eta industriak, berriz, beste 2.000 eman ditu, nahiz eta balio erantsiak beherakada txiki bat izan duen aldi horretan. Bestalde, eraikuntzaren jarduera garrantzitsuak ez zuen eskulan gehiago behar izan, eta haren enpleguak ez zuen aldaketarik izan aurreko urteko zifrearekin alderatuta.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzza.

BJA inkestak emandako informazioaren arabera, 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren enplegu tasa (biztanleria potentzialki aktiboa delakoa) %70,1era igo zen, azken urteetako tasarik

handienera. Interesgarria da azpimarratzea bi sexuek beren tasak hobetu zituztela, batez ere emakumeek, %67,1era iritsi baitziren, nahiz eta oraindik gizonen tasa berdintzeko (%73,1) sei puntura dauden.

Aitzitik, partaidetza tasa zertxobait apaldu da, bai aurreko hiruhilekoaren aldean, bai aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Hain zuzen ere, 2023ko bigarren hiruhilekoan tasa orokorra %56,1koa izan zen, lehen hiruhilekoan baino bi hamarren gutxiago eta duela urtebete erregistratutakoa baino lau gutxiago. Beraz, inkesta horren arabera, ez da hautematen pertsona berri asko sartu direnik lan-merkatuan, nahiz eta enplegu sorrera garrantzitsua izan eta lanpostua bilatzeko pizgarria izan ohi den. Emakumeen kasuan, lan merkatuko partaidetza tasa %51,9koa izan zen, aurreko urtearen aldean aldaketarik gabe; gizonen kasuan, berriz, tasa hori %60,6koa izan zen, 2022ko balioa baino ia puntu bat txikiagoa.

Kontu ekonomikoek adierazten duten erritmo egonkorrean sortutako enpleguak jarraipena izan du jadanik igaro diren hirugarren hiruhilekoko hilabeteetan, Gizarte Segurantzako afiliazioak argitaratutako informazioaren arabera. Zehatz-mehatz adierazita, bigarren hiruhilekoan afiliazioen kopuruaren batez besteko hazkundera %1,6koa izan zen, lanpostuetarako kontu ekonomikoetan zenbatetsitako %1,5aren oso antzekoa baita; eta uztailera abuztutako batez bestekoa, berriz, %1,7koa izan zen. Afiliazioaren hazkunde egonkor eta iraunkor hori zerbitzuetan lortzen da batez ere, %2,0 inguruan hazten baitira, baina industriak ere ekarpen esanguratsua egiten du (%1,0), batez ere kontuan hartzen bada balio erantsia eta ekoizpena murrizten ari direla.

Enpleguaren gorakadak eta lan merkatuan jende gehiago sartu ez izanak langabeziaren jaitsiera nabarmena ekarri dute. 2023ko bigarren hiruhilekoan, langabezia tasa %7,4 izan zen, 2008ko amaieratik izandako zifrarik txikiena baita. Sexuaren arabera, aldeak nabarmen murriztu dira; beraz, emakumeen langabezia tasa %7,6koa da orain, gizonena baino lau hamarren bakarrik handiagoa. Bestalde, enplegu bulegoetako erregistroen arabera, udako hilabeteetan langabeziaren beherakadak bere horretan jarraitzen du, baina erritmoa arindu egin da, -%4,5era iritsi arte.

BPGaren urte arteko aldakuntzak (%1,5) eta enpleguarenak (%1,5) iradokitzen dute bigarren hiruhilekoan ez zela itxurazko produktibitatearen hobekuntzarik lortu. Eraitza hori urrun dago 2021ean eta 2022an eskuratu ziren hiru puntu inguruko irabaziekin eta aldagai horren erregistro historikoarekin (%1,0). Industriako produktibitatearen jaitsierak (-%1,6) azaltzen du ezohiko eraitza hori, eraikuntzak ohiko batez besteko balioa (%0,4) baino askoz ere irabazi handiagoa izan zuen arren (%3,9). Bestalde, zerbitzuak (%0,3) ez ziren asko aldendu azken hogeita zazpi urteetako batez besteko irabazietatik.

Barne eta kanpo eskaria

Eskariaren ikuspegitik, bigarren hiruhilekoko ezaugarri nagusia kanpo saldoaren norabide aldaketa da, lehen hiruhilekoan lau hamarreneko ekarpen positiboa egitetik bigarrean BPGaren hazkunderari hiru hamarren kentzera igaro baitzen. Zazpi hamarren horiek ia erabat justifikatzen dute EAEko ekonomiak bigarren hiruhilekoan izandako moteltzea. Inguruko ekonomietan nabari den ahuleziak nazioarteko merkataritzaren bilakaera baldintzatu du, esportazioen eta inportazioen balioak 2021ean eta 2022an, batez beste, eskuratu ziren bi zenbakiko hazkunde tasetatik ezagutzen den azken hiruhilekoko urte arteko jaitsiera txiki batzuetara murriztuz.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2021	2022	2022			2023	
			II	III	IV	I	II
BPG erreala	6,0	5,4	6,5	4,8	3,4	2,3	1,5
Gastua azken kontsumoan	5,1	6,0	6,3	6,2	4,4	1,9	1,5
- Familien gastua kontsumoan	5,8	7,7	8,7	8,0	5,1	1,7	1,3
- Adminis. gastua kontsumoan	3,2	0,7	-1,7	0,8	2,2	2,4	2,0
Kapital eraketa gordina	5,9	8,7	10,4	9,9	4,8	1,6	2,5
- Ekipamendu ondasunak	11,1	7,1	8,6	7,5	3,2	2,4	0,9
- Gainontzeko inbertsioa	2,8	9,6	11,6	11,4	5,9	1,1	3,5
Barne eskaria	5,3	6,7	7,2	7,1	4,5	1,8	1,7
Esportazioak	10,7	17,1	22,4	16,8	8,6	6,3	-2,5
Inportazioak	9,4	18,7	22,9	20,6	10,2	5,5	-2,0

Iturria: Eustat.

Bestalde, barne eskariak hazkunde erritmoaren egonkortasunaren irudia eman zuen, %1,7ko hazkundera izan baitzuen, aurtengo hasieran baino hamarren bat gutxiago bakarrik. Agregatuaren egonkortasun horrek bilakaera kontrajarriak ezkutatzeko bere bi osagai nagusietan, azken kontsumoa apaldu egin baita, eta kapital eraketa gordina, ordea, emaitza nabarmen hobetu baitu, nahiz eta jarduera ekonomikoa inguratzen duen ziurgabetasuna handia den. Azken kontsumoko gastuari dagokionez, bi atalek bilakaera paraleloak izan zituzten eta biek hazkunde erritmoa lau hamarrenetan leundu zuten. Administrazio publikoen gastuaren kasuan, oraindik ere gorakada nabarmena hauteman da, %2,0 hazi baita, ekonomiaren batez bestekoa

baino puntu erdi gehiago eta aldagai horrek 2022an lortutako batez besteko balioa baino puntu bat baino gehiago lortu du.

Familien kontsumoak moteldu egin zuen bere hazkunde erritmoa, lehen hiruhilekoko %1,7tik bigarreneko %1,3ra. Kontsumoko prezioen igoera handiak, elikagaienak bereziki, familien erosteko ahalmena higatu du. Gainera, hipoteken garestitzeak kontsumorako izan litezkeen diru sarreren zati bat desbideratu du. Hala ere, enpleguaren sorrera jarraituak eta soldaten igoerek ahalbidetzen dute kontsumo pribatua EAEko ekonomia osoa baino pixka bat bakarrik gutxiago haztea.

KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2021	2022	2022			2023	
			II	III	IV	I	II
Kontsumoa							
Azalera eta kate handietako salmentak	0,2	-1,3	-1,1	-0,9	-2,2	-0,3	0,6
Txikizkako merkataritza indizea	3,5	2,9	5,3	1,4	0,2	1,9	1,1
Kontsumo ondasunen ekoizpena	12,0	4,5	3,5	2,9	3,2	3,0	1,5
Kontsumo ondasunen inportazioa	20,0	17,6	48,3	16,1	1,1	15,5	-6,9
Turismoen matrikulazioa	-19,7	-8,8	-9,8	-11,1	-0,5	18,7	1,7
Inbertsioa							
Ekipo ondasunen ekoizpena	13,3	9,4	13,0	4,1	5,9	5,4	-0,5
Ekipo ondasunen inportazioa	21,1	21,3	23,5	26,8	16,2	26,3	7,9
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	7,0	-13,5	-23,5	-21,3	22,8	8,3	19,5
Etxebizitza berriak eraikitzeko oniritziak	39,6	-13,7	-34,9	3,1	-22,2	-39,7	---
Lizitazio ofiziala	63,2	40,7	-19,7	108,9	69,2	17,6	-5,2

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Kapital eraketa gordinak hobekuntza nabarmena izan zuen emaitzan, hazkunde tasa %2,5 bizkortu baitzen, aurreko hiruhilekoan lortutakoa baino ia puntu bat gehiago, baina joan den urtean zehar lortutako ezohiko emaitza handietatik urrun. Agregatua osatzen duten bi osagaien artean, ekipamendurako inbertsioak honako faktore hauek pairatu zituen: industria sektorea inguratzen duen ziurgabetasuna, bai EAEko ekonomian bai inguruko ekonomietan; interes tasek izan duten igoera azkarra, edozein proiektu berriren kostuak garestitu eta errentagarritasuna murrizten duena; eta kanpo eskariaren ahultasuna. Aurreko guztiaren ondorioz, atala %0,9 hazi

zen, hau da, aurreko hiruhilekoan baino 1,5 puntu gutxiago. Aitzitik, gainerako inbertsioa, eraikuntzan egindakoa barnean hartzen duena, %3,5 hazi zen, aurreko hiruhilekoko emaitza ahula atzean utzita. Atal horri mesede egin dio eraikuntza jardueraren hedapenak, bai eraikinetan bai, bereziki, obra zibilean, nahiz eta etxebizitzaren salmentaren balaztak eragina izan dezakeen hurrengo aldietako datuetan.

Lehenago ere adierazi den bezala, EAEko ekonomiak bigarren hiruhilekoan izan duen moteltzearen zati handiena kanpo saldoak BPGaren hazkunderari ekarpen txikiagoa egitearen ondorio izan da. Hain zuzen ere, termino errealean, EAEko ondasun eta zerbitzuen kanpo esportazioak (Estatuko gainerakoak eta atzerrikoak) %2,5 murriztu ziren aurreko urtearen aldean, zortzi hiruhilekotan hazkunde tasa handiak eskuratu ondoren. Bestalde, inportazio errealeak %2,0 jaitsi ziren urte batetik bestera. Balio nominaletan, esportatutako zenbatekoa 15.694 milioi eurokoa izan zen, eta inportatutakoa, berriz, 16.390 milioi eurokoa, %1,0ko eta %0,4ko jaitsierekin, hurrenez hurren, prezio igoeren moteltze testuinguru batean.

Esportazio gehienak atzerrira bideratu ziren ondasunak izan ziren. Atal honek 8.134 milioi euroko langa gainditu zuen bigarren hiruhilekoan, kopuru garrantzitsua baita, baina ez da iristen aurreko hiruhilekoetan lortutakoetara. Izan ere, atzerrira esportatutakoaren balioa aurreko urteko aldi berekoa baino %11,0 txikiagoa izan zen. Kontuan hartu behar da Europako ekonomia nagusiek ere tasa negatiboak eskuratu zituztela bigarren hiruhilekoan, uztailean larriagotu egin direnak. Beraz, EAEko esportazioen ahultasun hori nazioarteko merkataritzaren dinamismoaren gutxiko testuinguru orokor baten barruan ulertu behar da.

Esportatutako produktuen arabera analisiak adierazten du jaitsieraren zati handi bat energiaren atalean gertatu zela. Talde horrek gorabehera handiak izaten ditu, nazioarteko merkatuen egoeraren arabera. 2022an, erregaien prezioek gora egin zuten urtean, salmenten zenbatekoa bikoiztu egin zen, eta, ondoren, 2023ko lehen erdian, salmenten balioa nabarmen murriztu da, neurri batean prezioen jaitsieragatik eta beste neurri batean saldutako kopuru txikiagoagatik. Hala, aurtengo bigarren hiruhilekoan %38,6 produktu gutxiago saldu da, eta %59,6 jaitsi da salmenten balioa.

Beste aldetik, energiaren bestelako produktuen esportazioek ere portaera negatiboa izan zuten, eta atal horren gutzizko balioa 2022ko bigarren hiruhilekoko baino %6,9 txikiagoa izan zen. Kasu horretan, bolumenaren jaitsiera handia izan zen, baina zati batean prezioen igoera nabarmenarekin konpentsatu zen. Produktu talde gehienek urte arteko tasa negatiboak jaso zituzten. Horien artean, nabarmenezkoak dira produktu kimikoen jaitsiera (-%32), paperarena (-%20,9) eta metal arruntak eta beren manufacturena (-%20,8), EAEko egitura esportatzaileen pisu handiena duen taldeetako bat. Aitzitik, positiboki baloratu behar da garraio-materialak

lortutako hazkunde tasa (%8,0), automobilgintzak etorkizun zalantzarriari aurre egin behar dion une honetan.

ESPORTAZIOAK PRODUKTUEN ARABERA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2021	2022	2022		2023		
			III	IV	I	II	II
GUZTIRA	23,0	26,8	23,8	19,0	21,2	-11,0	8.134.867
Energetikoak	43,5	108,8	98,2	88,6	-13,2	-59,6	285.400
Ez-energetikoak	22,0	22,2	18,4	15,0	24,1	-6,9	7.849.467
Nekazaritzakoak	31,9	35,1	41,4	41,6	52,6	-1,6	523.072
Kimikoak	48,2	29,4	12,3	19,6	38,7	-32,7	223.351
Plastikoak eta kautxua	21,6	17,1	13,1	8,8	19,4	0,0	585.063
Papera	21,6	31,9	38,3	24,6	10,4	-20,9	197.612
Metal arruntak	34,1	27,3	16,8	8,2	4,3	-20,8	1.869.641
Makinak eta aparatuak	11,6	13,0	2,7	16,9	24,7	-3,3	1.531.617
Garraio materiala	14,5	18,5	23,8	9,0	37,9	8,0	2.353.719
Gainerakoak	29,1	31,2	34,3	37,3	26,2	-7,6	565.395

Iturria: Eustat.

Esportazioak norako geografikoaren arabera aztertuz gero, salmenten jaitsiera herrialde garatuetan zein gorabidean daudenetan gertatu zela ikus daiteke. Lehenengo kasuan, beharakada %10,3koa izan zen, eta bigarreanean, %15,1ekoa. Ildo horretan, ia ez da aldatu eremuen araberrako banaketa; beraz, ELGAN sartzen diren herrialdeek guztizkoaren %85,5 jaso zuten eta garatzeko bidean dauden herrialdeek, berriz, gainerako %14,5.

Herrialde garatuen artean, euroaren eremua da berriz ere EAEko enpresen bezero nagusia, esportazio guztien %55,5 eskatu baitu. Eremu horretara saldutako produktuaren erdia baino gehiago bi ataletan biltzen da: garraio materiala eta metal arruntak eta horien enfabrikaturak. Lehenengoak emaitza positiboa eskuratu zuen, urte arteko %4,4ko igoerarekin; bigarrenak, ordea, jaitsiera handia ezagutu zuen, %23,7koa. Garrantziari dagokionez hirugarren taldea denak ere, hau da, makinek eta aparatuek, beharakada izan zuen aurreko urtearen aldean, baina txikiagoa (-%8,9).

Alemania izan zen EAEko enpresei eskaera gehien egin zizkien herrialdea, bere ekonomia atzeraldi txiki batean murgilduta dagoen arren. Guztira, Alemaniak 1.381 milioi euro balio zuten EAEko produktuak eskatu zituen, aurreko urtean baino %2,9 gutxiago bakarrik. Neurri handi batean, garraio materiala eskatu zuen, EAEko enpresek herrialde hartako automobilgintzarekin duten harreman estua indartzen duena. Atal horrek %4,8ko hazkundea izan zuen, makinerian lortutako %4,5aren antzekoa.

ESPORTAZIOEN HELMUGA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2021	2022	2022		2023		
			III	IV	I	II	II
GUZTIRA	23,0	26,8	23,8	19,0	21,2	-11,0	8.134.867
ELGA	23,9	27,1	26,1	19,2	25,0	-10,3	6.954.902
Eurogunea	25,9	27,3	24,6	18,0	16,6	-11,8	4.516.792
Alemania	13,4	22,2	20,6	19,9	19,2	-2,9	1.380.899
Frantzia	27,4	20,3	11,7	9,2	15,0	-14,6	1.207.454
Italia	26,5	29,8	15,7	17,4	16,1	-10,2	447.078
Erresuma Batua	26,2	17,0	7,1	14,7	41,2	-15,6	515.912
AEB	16,8	41,9	34,7	45,7	62,6	-4,4	581.398
ELGAtik kanpokoak	18,2	25,2	12,1	17,8	1,2	-15,1	1.179.965

Iturria: Eustat.

Frantziaren kasuan, esportazioak %14,6 murriztu ziren, 1.207 milioi euroraino. EAEko salmentak lau produktu taldetan banatuta daude, eta horien artean metalak eta beren manufakturak nabarmentzen dira, %26,3ko jaitziera izan baitzuten. Beste talde nagusietako batek, makinenak eta aparatuenak, antzeko urte arteko negatiboa izan zuen (-%24,4). Aitzitik, jaitzierak nabarmen txikiagoak izan ziren beste bi talde nagusietan: garraio materiala (-%1,6) eta kautxua eta plastikoak (-%3,6), biak automobilgintzaren sektoreari lotuak.

Italiara bidalitako esportazioak %10,2 gutxitu ziren aurreko urteko emaitzarekin alderatuta eta 447 milioi eurora iritsi ziren guztira. Herrialde horretara bideratzen diren bi produktu talde nagusiek beherakada nabarmenak ezagutu zituzten. Hala, metal arruntek %21,7 murriztu zuten saldutako balioa, eta makinek eta aparatuek, berriz, %15,2. Merkatu horretan ere salbuespena izan zen garraio materiala, salmentak %10,7 handitu baitziren, ibilgailu automobilen emaitza onagatik.

Eurogunetik kanpo, AEBak dira jada EAEko enpresen bezero nagusiak, Erresuma Batuaren aurretik. Herrialde amerikarrera 581 milioi euro balio zuten produktuak garraiatu ziren, aurreko urtean baino %4,4 gutxiago, nahiz eta merkatu horretako jaitsiera euroaren eremukoa baino txikiagoa izan. Nabarmendu behar da herrialde horrekiko harreman komertziala energia sektoreak osorik baldintzatzen zuela, baina gaur egun beste produktu batzuek hartu dutela lekukoa, bereziki automobilgintzak, herrialdeari egindako salmenta guztien %20 biltzen baititu, esportazioak hirukoiztu egin baitira.

Produktu energetikoek ere baldintzatzen dituzte EAEko esportazioak eta inportazioak merkatu britainiarrean. Bigarren hiruhilekoan, esportazio energetikoak %91,2 murriztu ziren, iazko 67 milioi euroetatik aurtengo 6 milioi baino gutxiagora. Horren guztiaren ondorioz, salmenta guztiak %15,6 murriztu ziren. Hala ere, pisu handieneko hiru taldeek portaera on samarra izan zuten, adierazitako tasa baino askoz ere jaitsiera txikiagoekin, eta makinaren kasuan %9,2ko hazkundera lortu zen.

Garapen-bidean dauden herrialdeetara bidalitako esportazioen analisiak erakusten du erregai mineralen salmentek behera egin dutela (-%88,2), baina emaitza positiboagoak izan direla beste produktu talde garrantzitsu batzuetan. Hala, garraio materialaren salmentak %2,8 bakarrik murriztu ziren aurreko urtearen aldean, eta makineriarenak, berriz, %4,4. Halaber, esportazioek gora egin zuten zenbait ataletan, hala nola nekazaritza produktuetan (%43,2), plastikoak eta kautxuan (%1,2) eta gainerako manufacturatan (%8,2).

Txinara bidalitako esportazioetan ez du aparteko eraginik erregaien bilakaerak; aitzitik, makinetan eta garraio materialean zentratzen dira neurri handi batean. Lehenengoek jaitsiera txiki bat izan zuten (-%2,5) eta azkenekoen jaitsiera nabarmenagoa (-%18,4). Hala eta guztiz ere, ibilgailu automobilen atalean sartzen diren produktuek dute eskari handiena Asiako merkatu horretan. Beste aldetik, Errusiara egindako esportazioak 17 milioi euro baino gutxiagora murriztu dira, herrialde horri ezarritako zigorren ondorioz. Urte arteko jaitsiera %55,1 izan da. Azkenik, Brasilgo merkatura bideratzen diren hiru partida nagusiek (makinak, metal arruntak eta garraio materiala) %30etik gorako jaitsierak jaso zituzten, eta emaitza, guztira, %31,3ko beherakada izan zen.

Esportazioek bezala, atzerritik ekarritako ondasunen inportazioek ere beherakada handia pairatu zuten bigarren hiruhilekoan, %9,9koa kasu honetan, eta guztira 7.078 milioi eurora iritsi ziren. Jaitsieraren zati handi bat erregai mineraletan gertatu zen, eta horien balioa laurden bat murriztu zen, 2022tik izan zuten merkatzearen ondorioz. Beste aldetik, energiaz bestelako ondasunek aurreko urtean lortutako balioaren %4,0 baino ez zuten galdu. Talde horren barruan, kontraste egiten du metal arruntek izan zuten %11,1eko jaitsierak eta makinek eta aparatuek izandako %14,6ko hazkundera, biak izanik Euskadiko egitura inportatzailearen partida nagusiak.

Bestalde, adierazi behar da garraio materialaren esportazioek izan duten bilakaera ona ez dela produktu horien inportazioen antzeko igoera batean islatu, eta haien hazkundera hutsala izan dela (-%0,2).

Inportazioen jatorriari dagokionez, jaitsierarik handiena garapen bidean dauden herrialdeetan egindako erosketetan gertatu dela ikus daiteke (-%22,0); aldiz, herrialde garatuetan izandako beherakada nabarmen txikiagoa izan da (-%3,7). Ohikoa izaten den bezala, erregai mineralen erosketak markatzen du bi eremuen arteko aldea. Aurtengo bigarren hiruhilekoan, erregai mineralen bost hornitzaile nagusietatik lau (Mexiko, AEBak, Herbehereak eta Norvegia) ELGAko kideak ziren; duela urtebete, ordea, Brasil, Libia, Ghana eta Ekuatore Ginea izan ziren, besteak beste, produktu horien jatorri nagusietako batzuk.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2021	2022	2022		2023		
			III	IV	I	II	II
GUZTIRA	34,1	39,7	46,1	22,5	11,1	-9,9	7.078.102
ELGA	28,0	32,5	32,0	17,0	19,3	-3,7	5.002.043
Eurogunea	28,5	22,3	19,5	10,8	14,8	-0,2	3.176.564
Alemania	21,1	21,5	20,7	15,2	10,5	9,6	1.065.547
Frantzia	29,8	21,8	10,7	4,3	-3,0	-19,8	556.594
Italia	34,8	15,7	14,1	4,3	7,1	-5,1	341.872
Erresuma Batua	33,6	42,5	-20,5	3,7	-52,7	-37,3	170.252
AEB	20,6	207,0	189,9	105,6	41,3	-20,8	451.953
ELGAtik kanpokoak	48,8	54,5	73,7	34,0	-4,5	-22,0	2.076.059

Iturria: Eustat.

Bigarren hiruhilekoan, atzerriko esportazioek eta inportazioek 1.057 milioi euroko merkataritza saldoa utzi zuten, Euskadiren aldekoa. Saldo hori 1.434 milioi euroko saldo energetiko negatiboak eta 2.491 milioi euroko saldo ez-energetiko positiboak osatzen dute. Bata zein bestea murriztu egin dira duela urtebete izandako balioekin alderatuta. Euskadik 1.953 milioi euroko saldoa lortu zuen herrialde garatuekiko, eta garapen bidean dauden herrialdeekiko merkataritza harremanetan 896 milioi euroko defizita izan zuen. Beste behin ere, nabarmentzekoa da Frantziarekiko lortu zuen saldo positiboa (651 milioi euro).

Prezioak, soldatak eta kostuak

Prezioen adierazleen bilakaerak aurreko hiruhilekoetan baino hazkunde txikiagoak erakutsi zituen. Hain zuzen ere, eta BPGaren deflatozetik hasita, 2022ko hirugarren hiruhilekoan maximoa ezarri ondoren, %5,0ko erregistroarekin, nahiz eta oraindik ere balio altuetan jarraitzen duen, 2022ko bigarren hiruhilekoan %3,5ean kokatu zen. Igoera txikiagoa izan zen deflatozetik, salbuespenik gabe, aurreko hiruhilekoan baino aldakuntza tasa txikiagoak izan zituztelako.

KPIari dagokionez, adierazle horrek beheranzko joerarekin jarraitu zuen, nahiz eta azken hilabeteetan bilakaera hori gelditu egin zen, abuztuan, argitaratu diren azken datuak hileko horretakoak baitira, %2,7ko baliora iritsi arte. Otsailean ia %6,0koa izan ondoren, ekainean urteko minimoa markatu zuen, %2,3ko erregistroarekin, batez ere energiaren prezioek izan zuten murrizketan oinarrituta. Era berean, oinarri efektu garrantzitsuen existentziak moderazio horri mesede egin zion.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2021	2022	2023		
			I	II	Abuztua
Inflazio osoa	3,1	8,1	4,9	3,3	2,7
Azpiko inflazioa	1,0	5,1	7,4	6,5	6,3
- Elikagai landuak	1,4	10,2	16,4	14,1	11,2
- Industria ondasunak	1,0	4,7	6,6	4,9	5,1
- Zerbitzuak	0,7	3,3	4,2	4,2	4,4
Hondar inflazioa	12,1	20,0	-4,0	-9,1	-10,5
- Landu gabeko elikagaiak	2,6	10,8	11,0	5,5	6,4
- Energia	21,3	28,2	-15,2	-20,2	-22,9

Iturria: INE.

Energiaren krisia arintzen doan heinean, Espainiako Gobernuak bere garaian inflazioak familietan eta enpresetan zuen eragina murrizteko hartu zituen laguntzeko neurriak irauli beharko lituzke, epe ertainera inflazio presioak berriro areagotu ez daitezten. Inflazioaren gorakadak ekar ditzakeen arriskuen artean, kanpo jatorriko faktoreak eta barne jatorriko faktoreak aipatu behar dira.

Kanpoko eremuan, ziurgabetasuneko iturri nagusiak gaur egungo tentsio geopolitikoaren bilakaerarekin lotuta daude, bereziki Ukrainako gerrarekin zerikusia dutenak, baita moneta politikaren gogortzea izaten ari den inpaktuarekin eta baldintza meteorologiko txarrekin, elikagaien prezioen igoerak berriro bultzatzen baitituzte.

Beste aldetik, barneko eremuan, bigarren txandako ondorioak agertzeko aukera dago, berriki adostu diren soldaten igoeren ondorioz, azken horiek inflazio tasak baino handiagoak izan direlako. Orobat, enpresen marjina handiagoak ere inflazioa kontrolatzeko oztupoak izan daitezke, batez ere EAEko lan merkatuak dinamismo handia erakusten jarraitzen duen testuinguru batean.

Horiek horrela, eta dauden arriskuak ezagututa, hasiera batean inflazioaren hazkunde erritmoa moteldu egingo dela aurreikusten da, nahiz eta petrolioaren ekoizpenean azkenaldian murrizketak erabaki diren, nazioarteko merkatuetan petrolioaren prezioa nabarmen igozten ari baitira. Hala eta guztiz ere, gaur egun nabaritzen diren presioak batez ere barrukoak dira, enpresen marjinen eta soldaten igoeren ondorioz, eta oraindik ez da inflazio espiralirik hauteman.

Azpiko inflazioari dagokionez, moderazio zantzuak erakutsi zituen, aurtengo otsailean goia jo ondoren, %7,4ko erregistroarekin, baina oraindik ere maila altuetan jarraitzen du, batez ere energiaren prezioen aurreko igoerek ekonomia osoaren prezioetan izan duten eragin iraunkorragatik. Intzidentzia hori desberdina izan zen adierazle hori osatzen duten osagai bakoitzean. Hala, landutako elikagaien prezioen igoera moteldu egin zen, baina digitu bikoitzeko igoerak jasotzen jarraitzen dute. Aitzitik, industriaren ondasunek goranzko joera erakutsi zuten, nahiz eta urte hasieran lortutako balioetatik urrun egon. Azkenik, zerbitzuen prezioek gora egin zuten, goranzko oinarri efektuengatik eta turismoarekin eta aisialdiarekin lotutako jardueretarako eskaeraren sendotasunagatik.

Bien bitartean, hondar-inflazioak berriz ere aldakuntza tasa negatiboetan jarraitu zuen, energiaren prezioen bilakaeragatik, lehengai energetikoen prezioetan izandako jaitsierak mesede egin zuelako, nahiz eta azken egunotan petrolioaren upelaren prezioa 100 dolarretara hurbiltzen ari den, LPEEk petrolio murrizketari eusten diolako eta prezioei goranzko presioa egiten dielako. Beste aldetik, landu gabeko elikagaien salneurrien igoerak murriztu egin ziren, lehengai batzuen kostuak behera egin zuelako. Hala eta guztiz ere, baliteke nekazaritzako uzta batzuen murrizketak, alderdi meteorologikoen ondorioz, prezioen moteltzeko joera hori mugatzea.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2021	2022	2023			
			I	II	Abuztua	Ekarpena
Indize orokorra (%100)	3,1	8,1	4,9	3,3	2,7	2,7
Janariak eta alkohol gabeko edariak (%19,2)	2,0	11,2	15,3	11,4	10,0	1,9
Edari alkoholduak eta tabakoa (%3,4)	0,4	4,3	7,6	7,6	6,7	0,2
Jantziak eta oinetakoak (%4,3)	1,0	2,9	2,9	1,5	2,3	0,1
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa (%11,7)	11,3	16,5	-11,1	-12,1	-19,7	-2,3
Etxeko hornidura (%6,1)	1,9	6,6	8,0	7,2	5,4	0,3
Medikuntza (%5,6)	0,8	0,6	1,9	2,8	2,6	0,1
Garraioa (%12,6)	7,3	11,2	1,3	-2,9	1,9	0,2
Komunikazioak (%3,1)	-2,9	-1,2	2,4	2,5	4,4	0,1
Aisia eta kultura (%8,5)	-0,1	3,2	3,5	4,8	7,8	0,7
Irakaskuntza (%2,7)	0,9	1,6	1,9	1,9	1,9	0,1
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak (%15,3)	1,2	5,9	7,0	6,4	5,5	0,8
Besteak (%7,4)	1,3	3,8	5,4	6,1	5,5	0,4

Iturria: INE.

Elikagaien prezioen igoeran aipatutako moteltzea gertatu bada ere, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldea izan zen inflazio handiena jaso zuena, abuztuan, argitaratu den azken hilekoan, %10,0ko aldakuntza tasarekin. Era berean, inflazio globalaren igoerari egindako ekarpenagatik nabarmentzen dira, bai aisialdia eta kultura (%7,8), bai jatetxeak eta hotelak (%5,5), jarduera horiekiko eskariaren indarra erakusten baitute. Aitzitik, etxebizitza taldea izan zen balio negatiboak eskuratu zituen talde bakarra (-%19,7), igoerak 2022ko abuztuan erregistratutakoak baino txikiagoak izan baitziren.

Aurreko aldietan bezala, industria arloko prezioen urte arteko aldakuntza tasa negatiboa izan zen berriz ere, eta horrela moteltzeko prozesua berretsi egin zen. Zehatz-mehatz adierazita, uztailean, IPRI indizea %5,0 beheratu zen, beste behin ere energiaren prezioen bilakaera negatiboan oinarrituta (-%24,9). Era berean, ekoizpenaren lehen faseetako prezioak, bitarteko ondasunei dagokien bezala, %1,2ra jaitsi ziren aipatutako aldian. Aitzitik, ondorengo ekoizpen faseetan, non kontsumoko ondasunak nabarmenduko lirartekeen, hazkundea %10etik gorakoa izan zen.

KPIaren igoeren hazkunde erritmoa moteltzen ari den bitartean, EAEko soldaten gorakada nabarmena izan zen, une hauetan inflazioarena berarena gaituz. Horiek horrela, soldata horiek 2021ean hasitako prezioen igoeraren ondoren galdutako erosteko ahalmena berreskuratzen hasi dira, inflazioaren gaituz lehen aldiz haziz, pandemiaren urtetik gertatzen ez zena. Zehazki, aurtengo batez besteko igoera %4,0koa da, aurreko urtekoaren oso antzekoa. Ikus daitekeenez, aurten sinatutako hitzarmenek batez bestekoa baino igoera handixeagoa (%4,5) izan dute. Bestalde, ez dago alde handirik enpresa mailan egindako akordioen eta hitzarmen sektorialen artean. Erosteko ahalmena hobetzeaz gain, aldi horretako negoziazio kolektiboaren beste alderdi oso positibo bat da nabarmen aurreratu zela hitzarmenak eguneratzeko atalean, eta adostutako soldata igoerek langile gehiagorengan izan zutela bere eragin positiboa.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019	2020	2021	2022	2023 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	2,0	1,7	1,2	4,1	4,0
- Urtean zehar sinatutakoak	2,3	1,2	1,1	4,1	4,5
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	2,1	1,7	1,0	3,9	4,0
- Enpresako hitzarmenak	1,8	1,7	1,9	4,7	4,1

(*) 2023ko uztaile arte erregistratutako hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Azkenik, guztizko lan kostuek eta horien osagaiak hazkunde garrantzitsuak izan zituzten aurtengo bigarren hiruhilekoan, aurreko aldietako goranzko joera sendotuz, 2022an moteldu ondoren. Hain zuzen ere, langile bakoitzeko lan kostua % 6,9 handitu zen eta soldaten kostua, berriz, %6,3. Igoerak handiagoak izan ziren lan egindako ordu bakoitzeko kalkuluan (%10,0 eta %9,3, hurrenez hurren). Bi kasuetan, soldataz kanpoko kostuak izan ziren igoerarik handienak eskuratu zituztenak. Azkenik, itundutako orduak apenas aldatu ziren aurreko urtean adostutakoekin alderatuta (%0,3), eta benetan lan egindako orduak, berriz, jaitsiera txiki bat ezagutu zuten.

LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2021	2022	2022			2023	
			II	III	IV	I	II
Lan kostu guztiak langileko	4,9	2,7	1,5	1,7	5,4	5,0	6,9
- Soldata kostua guztira	4,9	2,9	1,5	1,0	6,2	4,3	6,3
- Bestelako kostuak	4,8	2,2	1,4	3,6	2,9	7,1	8,6
Lan kostu guztiak orduko	-2,4	2,6	-1,1	6,3	5,1	3,4	10,0
- Soldata kostua guztira	-2,4	2,8	-1,0	5,5	5,9	2,6	9,3
- Bestelako kostuak	-2,6	2,2	-1,2	8,4	2,6	5,5	11,7
Adostutako lan orduak	1,5	-0,5	-1,0	-0,5	-0,5	0,1	0,3
Benetan lan egindako orduak	7,2	0,4	2,6	-4,3	0,3	1,6	-2,8

Iturria: INE.

Arlo publikoa

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ogasunek 11.360 milioi euro bildu zituzten abuztura arte, hau da, %6,9ko hazkundera eta 700 milioi euro baino gehiago aurreko urteko aldi beraren aldean. Aurreko aldietan ez bezala, bilakaera positibo horren arrazoia PFEZak erakutsi zuen portaera ona izan zen, kudeaketa propioko BEZagatiko diru sarrerak hazkunde askoz ere apalagoa izan baitzuten.

Horiek horrela izanda, PFEZ da kutxa publikoetara diru sarrerarik gehien ekartzen ari den zerga, eta diru bilketaren gehikuntzari nagusiki eusten dion zerga da, enpleguaren bilakaera positiboaren eta batez besteko soldatan izaten ari diren igoeren ondorioz. Zehatz-mehatz adierazita, soldaten ganean egiten diren atxikipenek, bilketa osoaren bilakaeran pisu handiena duten faktore esplikatzailea baita, %11tik gora hazten jarraitzen dute. Era berean, nabarmendu behar dira kapital higigarriaren errentegatiko atxikipenek (%22,8), berriro ere, izan zituzten hazkunde tasa altuak, dibidenduen hazkundeari eta bankuetako kontuen interesen hazkundeari esker.

Halaber, zuzeneko zergapetzearen beste osagai nagusiak, hau da, sozietateen gaineko zergak, gorakada nabarmena eskuratu zuen (%18,6), eta horri gehitu behar zaio aldi horretan urte osoko diru sarreren zati handi bat jasotzen dela, urte naturalaren pareko zerga ekitaldia zuten zergadunentzako aurkezpenaren epea uztailearen 25ean amaitu baitzen. Gainerakoan, zerga

horrek lortu zuen igoera nabarmena sozietateen mozkinak izan zuten portaerarekin lotuta egon zen.

TRIBUTU ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-abuztua)

Mila euro

TRIBUTUAK	Diru bilketa		
	2022	2023	% Ald. 23/22
PFEZ	4.074.735	4.440.580	9,0
Sozietateen gaineko zerga	1.072.555	1.272.255	18,6
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	50.372	113.548	125,4
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	103.675	107.755	3,9
Ondarearen gaineko zerga	167.298	173.357	3,6
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak	28.835	29.740	3,1
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	308	-336	-
ZUZENAKO ZERGAK GUZTIRA	5.497.778	6.136.899	11,6
BEZ	4.091.916	4.074.051	-0,4
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	124.949	116.813	-6,5
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	32.330	24.575	-24,0
Garraio bide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	16.126	17.261	7,0
Fabrikazioaren zerga berezia	711.402	752.594	5,8
Aseguru sarien gaineko zerga	69.651	73.537	5,6
Joko jardueren gaineko zergak	3.332	4.846	45,4
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	2.206	3.244	47,1
Iraungitako zergak	-3	2	-
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	5.063.739	5.138.944	1,5
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	66.351	84.382	27,2
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	10.627.868	11.360.226	6,9

Iturria: Foru aldundiak.

Zeharkako zergei dagokienez, bertan kudeatutako BEZak %2,5erainoko aldakuntza tasa izan zuen, oinarritzko bi azalpenen ondorioz. Lehenengoa aurreko urtean produktu energetikoek izan zituzten prezio altuak dira, egungo prezio merkeagoekin alderatuta. Bigarrena oinarritzko elikagaietan (%4tik %0ra, oro har, eta %10etik %5era olioaren eta pastaren kasuan), elektrizitatean (%10etik %5era) eta gas naturalean (%21etik %5era) tasak jaitsi izana da.

Azkenik, Estatuarekin egin behar diren doikuntzak egin aurretik zerga berezien atalean bildutako diru zenbatekoa %4,5 gutxitu zen. Jaitsiera hori hidrokarburoen gaineko zergaren bilakaerak eragin zuen batez ere (-%4,7), arestian aipatutako energiaren prezioen jaitsierak baldintzatuta, eta baita tabako laboreen gainekoak eraginda ere (-%6,3), iazko abuztuko maila altuarekin alderatzen delako.

Arlo finantzarioa

Udako hilabeteetan, finantza merkatuen bilakaera, neurri handi batean, inflazioaren aurreikuspenetan egin diren berrikustek eta moneta politikan espero ziren ondorioek baldintzatu zuten. Izan ere, inflazioak azken hilabeteetan zertxobait behera egin badu ere, maila altuetan jarraitzen du oraindik eta luzaroan altu mantenduko dela aurreikusten da. Hori dela eta, banku zentral nagusiek interes tasa ofizialak igotzen jarraitu zuten, igoera horiek, behar bezain epe luzean mantentzen badira, inflazioa beren helburuetara itzultzen lagunduko zutelakoan.

Zehatzago esanda, EBZk bi igoera berri egin zituen uztailean eta abuztuan; horrela, ondoz ondoko hamar igoera osatu zituen, eta diruaren prezioa %4,5ean ezarri zuen, 2001etik izandako mailarik altuenean, alegia. Berrikuntza gisa, Europako erakundeak iradoki zuen azken igoera izan zitekeela. Erreserba Federalak (Fed) ere beste igoera bat egin zuen uztailean, urkila %5,25-%5,5ean utziz. EBZk ez bezala, Fedek adierazi zuen bere ibilbide orrian beste bi igoera aurreikusten dituela aurten, nahiz eta uztaileko inflazioaren datu onek, %3,7 (azpiko inflazioa %4,3an kokatu zen), zalantzan jartzen duten horiek gertatzea. Izan ere, iraileko bileran interes tipoak ez dira aldatu. Gainerako herrialde garatuen artean, Kanadako Bankuak oinarrizko 25 puntu igo zituen uztailean, Ingalaterrako Bankuak abuztuan bezala. Bestalde, ez Australiak, ez Zeelanda Berriak, ez zuten igoera gehiagorik erabaki. Japoniako Bankuak bere horretan mantendu zuen tasa negatiboan politika eta kontrol estrategia kurba subiranoan.

Gorabidean dauden ekonomien taldean, bi ezusteko nabarmen gertatu ziren. Batetik, Turkiako banku zentralak hiru igoera jarraian egin zituen udako hilabeteetan, %8,5etik %25,0ra, inflazioaren igurikimenak finkatzeko eta prezioen dinamikaren narriadura kontrolatzeko. Bestetik, eta kontrako norabidean, Brasilgo Banku Zentralak oinarrizko 50 puntuko murrizketa egin zuen bere erreferentzia tasan, lehena hamabi hilabeteetan, eta horrek esan nahi dezake pizgarri ekonomikorako neurri multzo baten hasiera dela.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (I)

	2021	2022	2023					
			Ap.	Mai.	Eka.	Uzt.	Abu.	Ira. (*)
Interes tasa ofizialak (%)								
Europako Banku Zentr.	0,00	2,5	3,5	3,75	4,0	4,0	4,25	4,5
Erreserba Federala	0,25-0,0	4,25-4,5	4,75-5,0	5,0-5,25	5,0-5,25	5,25-5,5	5,25-5,5	5,25-5,5
Japoniako Bankua	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10
Ingalaterrako Bankua	0,25	3,5	4,25	4,5	5,0	5,0	5,25	5,25
Txinako Banku Popular	3,80	3,65	3,65	3,65	3,55	3,55	3,45	3,45
Brasilgo Banku Zentr.	9,25	13,75	13,75	13,75	13,75	13,72	13,25	13,25
10 urteko zor publikoaren errentagarritasuna								
Alemania	0	0	0	0	0	0	0	0
Espainia	77	109	105	107	99	105	102	107
Grezia	149	203	189	151	133	131	133	147
Erresuma Batua	115	111	140	191	199	185	189	167
Italia	136	213	186	182	168	164	166	180
AEB	168	127	111	136	142	148	163	160

(*)Irailaren 20ko datuak.

Iturria: Espainiako Bankua.

Bonuen merkatuan, datu makroekonomikoez eta banku zentralen mugimenduez eta mezuez markatu zuten tipo subiranoen ibilbidea. Horrela, AEBetan, uztailen, Fitch Ratingek ratinga jaitsi izanak bere bonuei eskatutako errentagarritasuna handitu zuen. Ondoren, errentagarritasuna murriztu egin zen jarduera ekonomikoari buruzko datu onak argitaratu zirenean. Datu horiek atzeratu egin zituzten AEBetako ekonomiaren gaintik zeuden atzeraldi-aurreikuspenak. Eurogunean, bere bilakaera ekonomikoaren apatiak ere gorantz bultzatu zituen herrialde nagusiei eskatutako errentagarritasunak, eta guztien artean Alemaniaren kasua nabarmentzen da, bere ahultasun ekonomiko nabarmenaren ondorioz, hamabi hilabete baino gutxiagoan %0,3ko errentagarritasuna lortzetik %3,2ra igaro baitzen. Aitzitik, hazkunde horrek arrisku primei mesede egin zien, batez ere herrialde periferikoei, beren mailak ia aldatu gabe mantendu baitzituzten.

2023. urtea urte bikaina izaten ari da nazioarteko burtsentzat, une jakin batzuetan izan ezik, horietan espero baino datu ekonomiko kaskarragoak eta euroguneko azpiko inflazio setati altuak irabazitako lurraren zati bat galtzea eragin baitzieten munduko parke nagusiei. Teknologia sektorea da, hain zuzen ere, Adimen Artifizialaren gaiaren inguruan sukar berri bat bizi duena,

portaera on horren gakoa, konpainien kopuru txiki batek errebalorizazioaren ia pisu guztia hartu baitu. Hala, Standard & Poors indizeak %16,0 hazi dira, eta Nasdaq indizeak, sektore teknologikoan pisu handia duenak, berpiztu egin da, %30,0ko errentagarritasuna emateraino.

Europan, tonua ere positiboa izan zen. Kasu horretan, finantzen eta kontsumoaren sektoreko balioak izan ziren indize nagusiak bultzatu zituztenak, erdieroaleen eta teknologiaren konpainien laguntzarekin. Alde negatiboan, energia alorreko konpainien beherakada, batez ere petrolioarena, eta higiezinena, interes tasen igoerak kaltetuta, nabarmendu ziren.

Dibisen merkatuan, euroaren eta dolarraren arteko harremanak gorabeherak izan ditu banku zentralek, Fedek eta EBZk mezu berri bat igorri edo mugimendu berri bat egin duten bakoitzean. Hala, uztailera arte pentsatu zen EBZren diskurtsoa gogorragoa zela, inflazioaren kontrola hazkudearen gainetik jartzen zuela argi eta garbi, eta Fedek, berriz, argitaratutako datuekiko mendekotasun handiagoa zuela. Horrek euroaren alde jarri zuen balantza, dolarraren aldean balioa irabazi baitzuen. Ondoren, abuztuan eta irailean, Alemaniako ekonomiak jasandako uzkurdurak eta euroguneak erakutsitako ahuleziak balantzaren joera aldatu zuten, eta inbertitzaileek dolarraren aldeko apustua egin zuten berriro. Hala ere, tasa ofizialetako diferentzialik txikienak eta arriskuagatiko goserik handienak euroa dolarraren aldean balioestean eragin zuten, eta horrek %0,44ko balio irabazia metatu zuen irailaren erdialdera arte.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (II)

	2021	2022	2023					
			Ap.	Mai.	Eka.	Uzt.	Abu.	Ira. (**)
Truke tasak								
Dolarra/euro	1,184	1,054	1,096	1,087	1,084	1,106	1,091	1,073
Yena/euro	129,9	138,0	146,2	148,9	153,1	155,9	158,0	157,8
Libera esterlina/euro	0,860	0,853	0,881	0,887	0,859	0,859	0,859	0,858
€ efektibo nomin.(%)	99,7	95,6	98,5	98,2	98,3	99,2	99,0	98,6
Burtsa indizeak (*)								
IBEX35	7,9	-5,6	12,3	10,0	16,6	17,2	15,5	15,7
Eurostoxx-50	21,0	-11,7	14,9	11,2	16,0	17,9	13,3	11,8
Dow Jones	18,7	-8,8	2,9	-0,7	3,8	7,3	4,8	4,5
Nikkei 225	4,9	-9,4	10,6	18,4	27,2	27,1	25,0	28,5
Standard & Poors 500	26,9	-19,4	8,6	8,9	15,9	19,5	17,4	16,0

(*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilekoaren azken egunera arte. (**) Irailaren 20ko datuak.

Iturria: Espainiako Bankua.

Euroak ere balioa handitu zuen yenaren aldean (%12,5), renminbiaren aldean (%6,1), baita gorabidean dauden beste ekonomia garrantzitsu batzuetako txanponen aldean ere, batez ere Turkiako liraren aldean (%44,9). Libera esterlinaren aldean, berriz, %2,4 jaitsi zen. Mugimendu horien guztien ondorioz, euroaren truke tasa efektibo nominala %1,3 indartu zen, euroaren eremuko 41 merkataritza bazkideren moneten aldean neurtuta.



Euriborraren bilakaerari dagokionez, 20 hilabetez etengabe gora egin ondoren, abuztuan hipoteken erreferentziarako indize nagusiak joera aldatu zuen eta behera egin zuen uztailarekin alderatuta. Halakorik ez zen 2021eko abendutik gertatu. Jaitsiera hori hamabi hilabeterako Euriborrak asteak zeramatzan egonkortzearen ondorio izan zen, eta EBZri tasen igoera gutxi geratzen zitzaizkiolako aurreikuspenek bultzatu zuten. Halaber, abuztuan ez zen egin interes tasak egokitzeko bilerarik eurogunean, eta, beraz, katalizatzaile horrek ez du eraginik izan indizean, eta horrek mugimenduak eragin ohi ditu indizean. Hala eta guztiz ere, EBZen beste bilera bat baino ez da behar izan jaitsiera txiki hori bertan behera uzteko. Izan ere, bileraren ondoren, Euriborrak goranzko bideari ekin zion berriro, eta irailaren 19an %4,2tik gorakoa izan zen, 2008tik izan duen eguneko tasarik handiena.

Indize horri buruzko aurreikuspenek, azken urte eta erdian frogatu den bezala, ezer gutxi balio dute interes tasen igoeraren, inflazioaren eta ziurgabetasunaren testuinguru batean, nahiz eta adituek uste duten %4,0 inguruan egonkortuko dela.

Etxebizitzaren hipoteken bilakaera

Batez besteko zenbatekoa (ezkerrean, milioiak)
hipoteka kopurua (eskuinean, milak)

Euriborra 12 hilera



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Higiezinaren merkatuaren narriadura areagotu egin zen aurtengo bigarren hiruhilekoan, inflazioari eusteko EBZk erabaki dituen interes tasen igoerak izan duen eraginaren ondorioz. Etxebizitzaren hipoteka merkatuan izan duen eragina begi bistakoa da, baina kontuan izan behar da konparazioa transakzioen errekorra hautsi zen urtearekin egiten dela; izan ere, 2022an ia 23.000 hipoteka sinatu ziren, hamaika urteko kopururik handiena baita. Analisia aurtengo bigarren hiruhilekoan eginez gero, sinatutako hipoteken kopuruak %20,8 egin zuten behera, 2022ko aldi berean formalizatutakoekin alderatuta. Hipoteka gutxiago sinatu ziren, bai tasa aldarrean, bai tasa finkoan eta mistoan, garestitu egin zirelako, baina aurreko urteko hiruhileko berean baino zenbateko handiagoarekin sinatu ziren. Hain zuzen ere, mailegu horien batez besteko zenbatekoa %5,4 igo zen, eta 165.600 eurora iritsi zen. Aurreko urteko hiruhileko berean, zenbateko hori 162.100 eurokoa izan zen. Notarioaren Kontseilu Nagusiak argitaratutako datuek berretsi egiten dute igoera hori, sei erkidegotara soilik hedatzen baita; gainerako hamaiketan, berriz, prezioak jaitsi egin ziren. Euskadi, Balear Uhartean atzetik (%18,7), bigarren hazkunderik handiena izan zuen.

Kredituen bilakaerari dagokionez, 2022. urtearen hasieratik, Espainiako kreditu erakundeek etengabe eraman dute merkatuko interes tasen igoera familiei emandako mailegu berrietara zein tasa aldarrean formalizatutako indarreko maileguetara. Translazio hori areagotu egin da joan den urtearen erdialdetik, eta mailegu modalitate guztiei eragiten die. Interes tasen etengabeko hazkundera familien kontsumoa geldiarazten ari da dagoeneko, eta goranzko ziklo berri horren iraupenari buruzko ziurgabetasuna dela eta, beren kredituak alde aurretik amortizatzea erabaki dute, tasen igoerek ordaindu beharreko kuotetan duten eragina ahalik eta txikien izan dadin. Estatu mailako datuen arabera, hipotekarako kredituen saldo garbia %23 murriztu da azken hamabi hilabeteetan. Enpresen sektorea antzeko joera jarraitzen ari da, eta Europako funtsetara eta bere baliabide propioetara jotzen du zorpetze maila ez handitzeko.

Kreditu eskari txikiagoarekin batera, atzera botatuko eskaeren ehunekoak gora egin du, eta, Espainiako Bankuaren Banku Maileguei buruzko Inkestaren arabera, gora egin du 2023ko bigarren hiruhilekoan. Bankuek arriskuarekiko tolerantzia txikiagoari, aurreikuspen ekonomikoen eta etxebizitzaren merkatuaren okertzeari eta mailegu hartzaileen kaudimenaren okerragotzeari egotzi diete bilakaera hori. Horren guztiaren ondorioz, kreditu pribatuak %4,6 jaitsi ziren eta 59.500 milioi euro inguru izan ziren, 2005. urtearen amaieratik erregistratu gabeko maila. Sektore pribatua babestu egiten da tipoen igoerek eta elikagai eta energia nagusien prezioak eragindako zailtasunetatik. Horretarako, 2022ko bigarren hiruhilekotik, hau da, Ukrainako gerra hasi zenetik, sektore pribatuak 2.881 milioi euro baino gehiago murriztu du zorra urte bakarrean.

Sektore publikoak ere behera egin zuen urte arteko tasetan (-%6,6), nahiz eta 395 milioi euro handitu zen bere zorpetzea aurtengo lehen laurdenarekin alderatzen denean. Horren guztiaren

ondorioz, kredituak %4,9 murriztu ziren guztira eta 70.000 milioi euro baino gutxiago izan ziren denera.

KREDITU ETA GORDAILUAK

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2021	2022	2022		2023			Aldea 2022-II eta 2023-II	
			III	IV	I	II	II	Milioi €	Tasa
Kredituak	0,1	-0,5	1,9	-0,5	-1,9	-4,9	69.070,7	-3.558,2	-4,9
Arlo publikoa	15,8	-0,7	0,1	-0,7	-5,1	-6,6	9.531,8	-677,2	-6,6
Arlo pribatua	-1,9	-0,5	2,2	-0,5	-1,4	-4,6	59.538,9	-2.881,0	-4,6
Gordailuak	4,7	1,5	2,6	1,5	-0,2	-2,0	96.496,1	-1.928,3	-2,0
Arlo publikoa	53,1	5,3	10,9	5,3	16,0	8,1	9.454,0	705,3	8,1
Arlo pribatua	1,2	1,1	1,8	1,1	-1,9	-2,9	87.042,1	-2.633,6	-2,9
Agerikoak	5,1	2,0	4,1	3,0	-1,3	-4,7	79.105,8	-3.911,6	-4,7
Eperakoak	-26,6	-18,3	-19,5	-18,5	-9,0	19,2	7.936,3	1.278,0	19,2

Iturria: Espainiako Bankua.

Azkenik, gordailuek ere behera egin zuten urte arteko tasetan neurtuta, ekoizpeneko kostu handiei eta zorpetzearen garestitzeari aurre egiteko erabili baitziren. Hala eta guztiz ere, %0,54 hazi ziren hiruhileko arteko tasetan. Izan ere, azkenean gordailuetara eramaten hasi den interes tasen igoerak aurreztaileen finantza produktu gogokoenetako bat berpiztu duela dirudi: eperako gordailuak, alegia. 2014an gainbehera hasi ondoren, epe finkorako gordailuak berriz aktibatuta dira, eta inbertsio funtsek eta pentsio planek emaitza apalak lortu dituzte. Izan ere, %2,0tik gorako ordainsariak zituzten lehen eskaintzak nahikoa izan ziren eperako gordailuak %19,2 hazteko, eta hiru hilabeteetan ia 1.500 milioi kontratatzeko. Espainiako Bankuaren arabera, epe finkoko kontuengatik eskainitako urtebeterako interes tasen batez bestekoa %2,22koa izan zen ekainean partikularrentzat (%2,3koa bi urtera arte) eta %3,01ekoa, berriz, enpresentzat (%2,70ekoa bi urtera arte). Horri esker, gordailuen guztizko zenbatekoa 96.500 milioi eurora hurbildu zen.

Aurreikuspenak

Munduko ekonomiaren hazkundearen kalkuluen arabera, ekoizpena neurri txikiagoan handituko da 2023an eta 2024an. Azken txostenetan, NDFk eta ELGak bat egiten dute munduko hazkundearen apaltze hori adieraztean, eta 2023an %3ko hazkundera izango dela adierazten dute, hurrenez hurren bi eta hiru hamarreneko goranzko berrikuspenen ondoren. Datorren urteari dagokionez, NDFk %3ko aurreikuspenari eutsi dio, eta ELGak bi hamarren jaitsi ditu aurreikuspenak, %2,7ra arte. Merkatuko truke tasen arabera neurtuta, NDFren aurreikuspenaren arabera, munduko produkzioa %2,5 haziko da 2023an eta %2,4, berriz, 2024an; Consensus Forecast erakundeak, ordea, %2,4 eta %2,1 iragarri ditu.

Inflazioak ekonomia aurreratuetan hazkunde handiagoa izateko oztopo nagusia izaten jarraitzen du, NDFk uztailean %1,5 eta %1,4 kalkulatu baitzuen urte honetarako eta hurrengorako. Horren ondorioz, banku zentralen gehiengo zabal baten ekintza bateratuak eta Txinako ekonomiaren egoerari buruzko ziurgabetasunak, beste egoera batean deflazio esportatzaile handitzat har litekeenez, eta munduko merkataritzaren bolumenean duten posizio garrantzitsuagatik, ekonomia horiek ahuldu egiten dituzte.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2022	2023	2024	2022	2023	2024
Munduko ekonomia	2,9	2,4	2,1	7,4	5,3	3,7
AEB	2,1	2,1	0,8	8,0	4,1	2,5
Kanada	3,4	1,3	0,7	6,8	3,8	2,5
Japonia	1,0	1,8	0,9	2,5	3,1	2,0
Eurogunea	3,4	0,5	0,7	8,4	5,5	2,5
Europar Batasuna	4,2	0,6	1,1	9,7	6,1	2,9
Alemania	1,8	-0,4	0,6	6,9	6,0	2,7
Espainia	5,5	2,2	1,4	8,4	3,6	3,0
Frantzia	2,5	0,8	0,8	5,2	5,0	2,7
Herbehereak	4,5	0,5	1,0	10,0	4,2	2,8
Italia	3,7	0,8	0,7	8,1	6,0	2,7
Erresuma Batua	4,1	0,3	0,4	9,1	7,4	3,1
Asia Pazifikoa	3,2	4,0	3,7	3,3	2,3	2,3
Ekialdeko Europa	1,1	1,5	2,3	22,9	15,2	10,6
Latinoamerika (Venezuela ezik)	3,6	1,7	1,6	15,7	18,4	14,3

Iturria: Consensus Forecasts (2023ko iraila).

Nahiz eta Txinarentzat aurreikuspenak hasieran, ekonomia berriro ireki ondoren, baikorrak izan, inflazioaren datu baxuak zenbait zalantza pizten hasi ziren bere ekonomiaren dinamismoaren galera posiblearen inguruan. ELGAK inflazio aurreikuspenak %2,1etik %0,5era jaitsi ditu, eta, hala badagokio, eraikuntzaren sektoreari lotutako zor maila altuek susperraldia murriztea ekar lezakete. ELGAK beheranzko joera berrikusi badu ere, 2023an %5,1ekoa izan zen eta 2024an %4,6koa. Nazioarteko testuinguruan jarraituz, Argentina da epe laburrean kezka gehien sor dezakeen herrialdea, 2023an espero den inflazioa %118,6 izango baita eta produkzioaren beherakada, berriz, %2koa.

Europako ekonomien bilakaera hauskorrago aurreikusten da, prezioen mailaren hazkundearen ondorioz. Txosten berrienean, Europako Batzordeak Europar Batasuneko estatu kideen 2023ko hazkundera %1,0tik %0,8ra murriztu du, eta euroaren eremuarena, berriz, %1,1etik %0,8ra. Era berean, EBZk bi hamarren murriztu du 2023rako aurreikusitako hazkundera, eta bost hamarren 2024rako aurreikusitakoa, %0,7 eta %1,0, hurrenez hurren. Alemania Batzordeak udaberrian aurreikusitakoa baino sei hamarren gutxiago haziko da, eta maila negatiboan sartuko da (-%0,4). Herbehereen kasua ere nabarmen berrikusi da, 1,3 puntu gutxiago hazi baita, %0,5ean geratzeraino.

Europako gainerako ekonomien joerarekin kontrastean, Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak positiboak dira 2023an. Urteko kontabilitatea argitaratu ondoren, hiruhilekoko kontabilitatearen berrikuspenak hazkunde tasak igo zituen urtearen lehen erdian, eta urteko hazkundera %2,0tik gorakoa izateko bidea erraztu zuten. Hala uste du Cepredek, produkzioa %2,0 haziko dela aurreikusten baitu, batez ere kapital eraketa gordinaren hazkunderan (%3,3) eta kanpo eskarian (esportazioak %5,2) oinarrituta. 2024an, inbertsioaren hazkundera bizkortu egingo da, urte arteko tasan %6,3ra iritsiko da; kontsumo pribatua, inflazio txikiagoaren ondorioz, %1,8 handituko da, eta kanpoko eskariak ekarpen negatiboa egingo dio hazkunderari.

Beste erakunde edo instituzio batzuen aurreikuspen gehienak %2,2-%2,3ko tartean daude 2023rako, hala nola Funcas (%2,2) eta Consensus Forecast (%2,2) erakundeetako panelisten batez bestekoa, Europako Batzordea (%2,2), Caixabank Research (%2,3), Espainiako Bankua (%2,3), Airef (%2,3) eta ELGA (%2,3). 2024ari dagokionez, espero den hazkundera hamarren bat edo bitan beherantz zuzentzeko joera dago. Hala, aurreikuspenen aukera %2,0tik beherako zifretara bideratuta dago gehienbat, besteak beste, Espainiako Bankuarena (%1,8), Airefena (%1,9) eta Europako Batzordearena (%1,9).

ESPAINIAKO EKONOMIARAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2023ko iraila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2023		2023	2024				2024
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	1,2	1,1	2,0	1,9	2,3	2,5	2,9	2,4
Kontsumo pribatua	-0,6	1,4	0,7	3,2	1,7	1,8	0,6	1,8
Kontsumo publikoa	2,3	0,4	2,0	2,4	1,2	1,2	1,4	1,6
Kapital eraketa gordina	3,4	7,0	3,3	7,0	6,9	5,8	5,4	6,3
- Taldeko inbertsioa	2,3	10,5	0,8	10,7	11,8	8,6	7,6	9,6
- Landatutako aktiboen	6,4	7,7	6,1	8,0	7,4	6,1	4,3	6,4
- Eraikuntzako inbertsioa	4,3	5,3	4,7	5,6	4,8	4,5	4,5	4,8
Barne-eskaria	0,8	1,6	1,3	3,5	2,6	2,5	1,9	2,6
Esportazioak	4,0	6,2	5,2	1,5	6,7	3,5	3,2	3,7
Inportazioak	2,9	8,0	3,6	5,2	7,9	3,9	1,0	4,5

Iturria: Ceprede.

EAEko ekonomia ez dago Europako ekonomiek bizi duten moteltzeko-prozesutik kanpo, eta 2023ko bigarren hiruhilekoan hazkunde erritmoa moteldu egin du, %1,5era arte, aurreko datua baino zortzi hamarren gutxiago eta 2022ko hiruhileko berean baino bost puntu gutxiago. Hala ere, bigarren hiruhilekoko hazkundea Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak ekainean egindako aurreikuspena (%1,3) baino zertxobait handiagoa da, eta inguruko ekonomien emaitzak nabarmen gainditzen ditu. Horregatik, aurtengo hazkunde aurreikuspena %1,7koa da orain, eta ekainean, berriz, %1,6koa zen. 2024. urteari dagokionez, aurreikuspena %2,1ean mantentzen da, nahiz eta osieran zenbait aldaketa gertatzen diren, kanpoko eskaria ahultzeko igurikimenean ondorioz, nahiz eta efektu hori kontsumoaren eta inbertsioaren bultzadak konpentsatzea espero den. Hiruhileko terminoetan, 2024ko lehen bi hiruhilekoek 2022ko hirugarren hiruhilekoan hasitako joerarekin jarraituko dutela aurreikusten da. Joera hori prezioen shockak eragindako hazkundearen moteltze batek markatzen du. Shock hori pandemiaren ondoren ekonomia berriz ireki ondoren hasi zen, eta Errusiak Ukraina inbaditu izanak eragindako krisi energetikoarekin larriagotu zen. Urte horren bigarren erdian, agertokiak hazkunde handiagoa aurreikusten du, prezioen egonkortzearen, moneta politika ez hain murriztailearen eta barne-eskariaren suspertzearen ondorioz.

Eskariaren ikuspegitik, egungo egoerak aurreikusten du azken kontsumoko gastuaren hazkundea hiru hamarren hobetuko dela aurreko aurreikuspenekin alderatuta, eta orain urte arteko %1,8ko hazkundea izango duela, BPGaren hazkundea baino hamarren bat handiagoa. Hobekuntza hori familien kontsumoan nabarmenduko da bereziki, haien moderazio erritmoa hasieran aurreikusitakoa baino txikiagoa dela baitirudi. 2024an, azken kontsumoko eta etxeetako gastuaren hazkundea %1,7 handituko dela kalkulatu da, enplegu garbiaren sorreraren

eta soldata-igoera nabarmenen ondorioz; izan ere, horiek erosahalmenari eusten lagunduko baitute.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2023ko iraila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2023		2023	2024				2024
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	1,7	1,4	1,7	1,5	1,7	2,3	2,9	2,1
Azken kontsumoa	2,2	1,4	1,8	1,6	0,9	1,7	2,4	1,7
Kontsumo pribatua	2,5	1,5	1,8	1,6	0,6	1,9	2,7	1,7
Kontsumo publikoa	1,1	1,0	1,6	1,6	1,9	1,0	1,7	1,5
Kapital eraketa gordina	4,6	2,2	2,7	1,8	3,8	5,5	5,9	4,2
Barne eskariaren ekarpena	3,3	1,3	2,1	1,3	1,5	3,0	3,7	2,4
Kanpo saldoaren ekarpena	-1,5	0,1	-0,3	0,2	0,1	-0,7	-0,9	-0,3
Lehen arloa	-8,6	5,6	-2,2	6,3	7,8	5,3	5,9	6,3
Industria eta energia	2,6	1,5	1,2	1,5	1,6	2,2	0,7	1,5
Eraikuntza	0,7	0,0	1,5	0,9	2,0	2,7	3,1	2,2
Zerbitzuak	1,7	1,3	2,0	1,3	1,6	2,4	3,5	2,2
Balio erantsi gordina	1,8	1,3	1,7	1,4	1,6	2,4	2,9	2,1
Ekoizkinen gaineko zergak	1,9	2,6	1,8	2,3	1,7	1,5	2,9	2,1
BPG nominala	5,1	4,7	5,4	4,7	4,6	5,0	5,6	5,0
BPGaren deflatoea	3,3	3,2	3,6	3,2	2,9	2,7	2,7	2,9
Lanaldi osoko lanpostuak	1,1	1,2	1,3	1,3	1,1	1,8	2,1	1,6
Landunak (BJA)	0,8	0,5	0,7	0,8	0,4	0,8	1,2	0,8
Langabezia tasa	7,1	7,7	7,7	7,8	7,1	6,5	6,8	7,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Kapital eraketa gordina (%2,7ko hazkundera 2023an eta %4,2koa 2024an) izango da barne eskaria BPGaren hazkunderaren gainera jarriko duen trakzio osagaia biurtekoan zehar. Esportazioen hazkundera termino errealetan mugatuta geratuko da Euskadiko aliatu komertzial nagusien nazioarteko testuinguru zailagatik, eta inportazioak, berriz, neurri handiagoan handituko dira, nahiz eta serie historikoarekiko hazkunde tasa baxuen mende ere egon, termino garbieran kanpo eskariak BPGaren hazkunderari ekarpen negatiboa eginez.


Eskaintzaren ikuspegitik, industriaren sektorerako aurreikuspenak hazkunde ahula izaten jarraitzen du, 2023ko bigarren hiruhilekoko datu txarra berretsi ondoren. Hala ere, aurtengo bigarren erdiko joera lehenengoa baino positiboagoa izango dela kalkulatu da, hirugarren hiruhilekoan %2,6ko aldakuntza tasak eta laugarrenean %1,5ekoak izango baitira, eta urteko batez besteko hazkundea %1,2ra igoko da. Joera positibo hori datorren urtera arte luzatuko da. Eraikuntzaren sektoreari dagokionez, aurreikusita dago urtearen amaieran jarduera murriztea Euriborraren hazkunde bat-batekoaren ondorioz; 2024an, berriz, goranzko bideari eustea espero da, batez ere urtearen azken zatian, interes tasen lehen jaitsierekin eta inbertsioen ekarpenarekin, horrela urteko %2,2ko igoerara iritsiz. Zerbitzuek jarraituko dute hazkundearen buru izaten eskaintzaren ikuspegitik, %2,0ko hazkundearekin aurtan, eta 2024an %2,2ra arte hobetuko da, urtean zehar goranzko joeran.

Termino arruntetan, BPG nominala %5,4 haziko da 2023an eta %5,0 2024an, eta horrek BPGaren deflatore implizitua %3,6 handitzea ekarriko du 2023an eta %2,9, berriz, 2024an.


2023ko eta 2024ko aurreikuspenak (I)

Urte arteko aldakuntza tasak

Barne produktu gordina



Enplegua



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Lan merkatuaren bilakaerak bide positiboan jarraitzen du, 2023ko bigarren hiruhilekoan lanaldi osoko lanpostu baliokideen hiruhileko arteko %0,7ko hazkundearen ondoren. Hala, aurreikusten da lanaldi osoko 13.000 lanpostu garbi sortuko direla aurtan, eta beste 16.000 gehiago datorren urtean, hau da, urte arteko hazkunde-tasak %1,2 izango dira 2023an eta %1,6, berriz, 2024an. Horri esker, 2023ko langabezia tasa zortzi hamarren murriztuko da aurreko urtearekin alderatuta, %7,7ra iritsi arte, eta 2024an jaisten jarraituko du, %7,0ra arte, eta urteko azken bi hiruhilekoetan %7tik beherako mailetan kokatu ahal izango da.

Aurreikuspen hauek egiteko hipotesien arabera, Euriborra %3,8ko maximoetan kokatuko da datozen hiruhilekoetan, interes tasak egonkortzearen ondorioz, eta euroak dolarraren aldean balioa irabaziko du 2023an (1,094 dolar euro bakoitzeko) eta 2024an (1,118 dolar euro bakoitzeko). Nazioarteko testuinguruak, EAEko ekonomiaren kanpo sektorearen portaera zehazteko balio duenak, Espainiako, ELGAko eta euroaren eremuko hazkunde tasetan islatzen denak, hazkunde ahuldu bat adierazten du euroaren kide diren herrialdeentzat eta ELGAko herrialdeentzat. Azkenik, kontsumo pribatuaren eta Espainiako ondasunen esportazioen deflatoreek aurreikuspenaren aldirako prezio mailaren igoera moteldu egingo dela aurreratu dute.

AURREIKUSPENAK EGITEKO HIPOTESIAK (2023ko iraila)

Mailak eta urte arteko aldakuntza tasak

	2023		2023	2024				2024
	III	IV		I	II	III	IV	
Euriborra (3 hileko)	3,8	3,8	3,4	3,8	3,8	3,7	3,6	3,7
Euro dolar truke tasa	1,105	1,124	1,098	1,122	1,121	1,117	1,111	1,118
Espainiako BPGa	1,2	1,1	2,0	1,9	2,3	2,5	2,9	2,4
ELGAren BPGa	1,1	1,3	1,3	1,4	1,4	1,5	1,5	1,4
Euroguneko BPGa	0,4	0,8	0,7	1,0	1,3	1,5	1,7	1,4
Espainiako konts. pribatuaren deflakt.	3,3	3,4	3,9	1,0	1,5	1,4	1,4	1,3
Espainiako ondasunen esport. deflakt.	-2,5	-2,4	0,6	-2,8	0,2	1,6	2,9	0,4


Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2023ko aurreikuspenak hobetu izana bat dator beste erakunde batzuek aurreikuspenetan egindakoekin. Hala, Ceprederen azken aurreikuspenak, Funcasenarekin batera, zenbatespen ezkorrena izaten jarraitzen du, %1,4rekin, baina maiatzeko aurreikuspena baino bost hamarren gehiagorekin. Bestalde, aurreikuspenik baikorrena BBVak egin du, eta Euskadiko BPGaren hazkundera %2,0koa izango dela dio, hau da, zazpi hamarren igo da, erakunde horrek berak martxoan egindako aurreikuspenarekin alderatuta. 2024ko aurreikuspenei dagokienez, bai Cepredek (%1,7) bai BBVak (%2,6) hazkunde aurreikuspenak murriztu dituzte, eta, 2023ko aurreikuspenei dagokienez bezala, oraindik ere zabala den aurreikuspen espektroaren muturretan daude.


2023ko eta 2024ko aurreikuspenak (II)

Urte arteko aldakuntza tasak

Aurreikuspen panela 2023



Aurreikuspen panela 2024



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (2023ko iraila), Funcas (2023ko martxoa), BBVA (2023ko ekaina), Cerepre (2023ko uztaila), Laboral kutxa (2023ko ekaina), Confebask (2022ko abendua) eta Hispalink (2023ko ekaina).